

The logo for BBVA Research, featuring the word "BBVA" in a bold, white, sans-serif font, followed by the word "Research" in a smaller, lighter weight of the same font. A small teal square is positioned to the right of the word "Research".

**BBVA** Research

# Zertan den Euskadi

2019

The text "Aukerak Sortuz" in a white, sans-serif font, set against a teal background.

Aukerak Sortuz

## **Aurkibidea**

<b>1. Editoriala</b>	<b>3</b>
<b>2. Euskadiko ekonomiaren perspektibak</b>	<b>5</b>
Euskadiko egoera ekonomikoaren azterketa, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren bidez. 2019ko lehen hiruhilekoa	28
<b>3. Espainiako errentaren lurralde-dinamika 1955etik 2016ra: lehen hurbilketa</b>	<b>31</b>
<b>4. Taulak</b>	<b>40</b>
<b>5. Glosarioa</b>	<b>43</b>

Itxiera data: **2019ko maiatzak 29**

# 1. Editoriala

**Euskadiko BPGren hazkundera moteldu egin zen 2018an, % 2,2ra arte, 2017an izandako igoera (+3,1 u/u) baino 0,9 p.p. beherago geldituz.** Dena den, hazkunde positiboko bost urte lotzen ditu datu horrek, urtean % 2,8ko igoerarekin, batez beste. Iazko moteltzearen ondoren, eskuragarri dugun azkeneko informazioak erakusten du jarduera ekonomikoa antzeko erritmoan bilakatuko dela hurrengo seihilekoetan ere, eta, aurreikuspenen arabera, **eskualdeko BPG % 2,2 handituko da 2019an, eta 2020an, berriz, % 2,0.** 2018. urte bukaeratik 2020. urte bukaerara 27 mila lanpostu inguru sortzea espero da, eta, bestalde, 2020an langabezia-tasa, batez beste, % 8,1era jaitsiko dela aurreikusten da; hala ere, enplegua krisi aurreko mailaren azpitik geldituko da oraindik, 5,5 p.p.

**2019ko lehenengo seihilekoan, eskualdeko BPG % 0,6 inguru handitu daiteke (h/h, UEEZ)<sup>1</sup>,** iaz erregistratutakoaren batezbestekoa baino hamarren bat gehiago, baina 2017koa baino bi hamarren gutxiago. Moteltzeko joera hori urteko lehen lauhilekoko afiliazio-datuetan eta 2019ko lehen hiruhilekoari dagokion Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren emaitzetan ere ikus daiteke, bigarren hiruhilekora begira ere moteltzeko joera hori adierazten baitute (ikus 1. Errekoadroa).

**Joan den urtean eta 2019ko hasieran Euskadiko ekonomiak izandako bilakaera hori ondasunen esportazioen eta zerbitzu turistikoaren hazkunde txikiagoaren ondorio da, bai eta zerga-bultzadaren moteltze erlatiboaren ondorio ere.** Iaz kontsumo pribatua apur bat handitu bazen ere, aldeko haizeak indarra galtzen ari dira, eta pilotutako eskaria urritzen ari da. Sektore publikoak aurreko urteko antzeko erritmoan handitu zituen kontsumoa eta inbertsio publikoa, eta zerga-superabita lortu zen bigarren urtez, lizitazioak beherantz egin arren. Inbertsio pribatuaren adierazleek hobera egin zuten; zehazki, kapital-ondasunen esportazioa azkartu zen, eta etxebizitzetako inbertsioak gorantz jarraitu zuen. Kanpoko eskariaren ekarpenari dagokionez, esportazioek eta industria-ekoizpenak aurreko izandako hazkunde txikiagoak hainbat alderdi islatzen ditu: Europatik eta Amerikatik iritsitako eskariaren ahultasuna, automobilgintzaren sektorearen inguruko ziurgabetasuna eta Txinaren eta AEBren arteko merkataritza-tentsioen ustekabeko areagotzea. Turismoaren sektorea ere motelago ari da, Espainia barneko eskariaren dinamismo txikiagoko testuinguruan.

**Hainbat faktorek lagunduko dute Euskadiko ekonomiaren hazkundeari eusten.** Alde batetik, munduko jardueraren bilakaerak egonkortasuna adierazten du. Eurogunearen eta AEBren hazkunde txikiagoak aldaketak eragin ditu diru-politikan, likidezia gehiago eta interes tasa txikiak luzaroago mantentzea bermatuz. Barne-eskaria bultzatuko du horrek, eta, zehazki, higiezinaren sektorea suspertuko du, bai eta produkzioaren esparruko inbertsioa eskualdean ere. Halaber, bultzada fiskalak, soldata publikoen eta pentsioen igoerak, eta gutxieneko soldataren igoerak etxeetako errenta handitzea ekarriko dute, eta epe laburreko kontsumoari eutsiko diote, enpleguaren hobekuntzarekin batera. Hobekuntza hori hiriguneetan gertatzen ari da nagusiki, batez ere, Donostia eta Gasteiz inguruetan. Gainera, Euskadiko administrazioek maniobra-tarte handiagoa dute. Euroak balio-galera handixeagoa izango duela eta urtearen bigarren zatian petrolio-upelaren prezioa, batez beste, 60 dolar ingurukoa izan daitekeela kontuan izanda, eurogunetik kanpoko esportazioak eta etxeetako kontsumoa sustatzea gerta daiteke; autonomia-erkidego honetan, esportazio horiek pisu handiagoa dute ondasunetan eta turismoarekin lotu gabeko zerbitzuetan.

**Ingurune globalak okerrera egin du, eta ziurgabetasuna handiagoa da.** Merkataritzaren esparruko tentsioak areagotzea eta AEBren eta Txinaren arteko aduana-tarifak handitzea dira arrisku nagusiak. Europan eragina izango du horrek, balio-kate globalen ondorioz. Mundu-mailako hazkundearen moteltze arina espero bada ere, orain arrisku hori handitu egin da, Amerikako eta Txinako ekonomien bilakaera kontuan hartuta. Bestalde, oraindik ez dago garbi Erresuma Batua Europar Batasunetik irtengo den ala ez. Irtengo balitz, horren eragina neurritsua izan daiteke Euskadiren kasuan, baina merkataritza-gatazka handiagoa gertatzeko aukerak, finantza-esparrua

1: UEEZ: urtarokotasun eta egutegi-eraginak zuzenduta.

kutsatzen badu batez ere, munduko eta, bereziki, Europako merkataritzaren eta ekonomiaren hazkunde txikiagoko agertokia ekarriko luke oro har. Aurrekoa gertatuko balitz, Euskadik beste autonomia-erkidego batzuek baino erronka handiagoa izango luke aurrez aurre, merkataritza-gerra automobilgintzaren edo ekipo-ondasunen sektoreetara hedatuko balitz batez ere.

**Barne-merkatuari dagokionez, zalantzak sortzen dira politika ekonomikoaren eta jada hartu diren zenbait neurriren ondorioen inguruan**, bai eragileen konfiantzan eta baita horien kontsumo eta inbertsio erabakietan ere eragin dutelako. Zatiketa politikoak zalantzak sortzen ditu estatuko gastu publikoaren bilakaerari eta defizit-helburuen betetze-mailari dagokienez. Kontu publikoen kontsolidatze prozesua, horretarako hain aldekoa ez litzatekeen zikloaren fase batean jarraitu beharrak zaurgarritasuna dakarkie Espainiako eta Euskadiko ekonomiei. Horrezaz gain, gutxieneko soldataren igoerak ondorio negatiboak izango ditu hazkunderaren eta epe laburrean enplegua sortzearen gain, igoera horrekin batera produktibitatea hobetzeko neurriak hartzen ez badira behintzat. Euskadiren kasuan, nahiz gutxieneko soldataren eragina txikiagoa izan, lan-kostuek igoera nominala erakutsi dute jada, zerbitzuetan bereziki. Gainera, estatuan turismoaren hazkundera moteltzea ere espero da, eta funtsezkoa da sektore hori Espainian enpleguaren sorrerari dagokionez. Ziurgabetasunaren handitze hori, bai atzerriko bai bertak testuingurunean, bat dator Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestak Euskadin islatzen duen konfiantzaren txikitzearekin.

Hala ere, **estuak dira Euskadiko ekonomiak epe ertainera dituen erronkak**: 2020an, enplegua 2008ko mailaren azpitik kokatuko da oraindik (5,5 p.p.), eta langabezia-tasa, berriz, gaineratik (1,3 p.p). Are gehiago, bilakaera demografikoak, bete gabeko lanpostu batzuk betetzeko zailtasunak eta enpleguaren behin-behinekotasun maila esanguratsuak desoreka eta inklusio falta eragin ditzakete suspertze-aldian. Beraz, aurrera begira ditugun erronken aurrean, ekonomiaren zaurgarritasuna murriztuko duten neurriak sustatu behar dira.

Azkenik, 1955etik 2016ra bitartean Espainiako lurralde-errentak izandako dinamikaren bilakaeraren azterketa bat aurkezten dugu aldizkari honetan. **Euskadin, biztanleko errentaren beherakada erlatiboa hautematen da aldi horretan eta abiapuntu maila altuaren ondorio da hori, guztiz**, bai eta gainerak erkidegoen konbergentziarena ere. Hala eta guztiz ere, Euskadik 2018an izandako per capita errenta Espainiako batezbestekoa baino % 31,8 handiagoa da eta erkidego guztien artean biztanleko BPG handienetan bigarrena.

## 2. Euskadiko ekonomiaren perspektibak

**Euskadiko ekonomiak moteldu egin zuen bere hazkunde-erritmoa 2018an, % 2,2ra arte INEk<sup>2</sup> emandako datuen arabera, 2017an % 3,1era iritsi ondoren.** BBVA Research-ek<sup>3</sup> otsailean egindako azken aurreikuspena baino puntu portzentual erdi beherago dago ehuneko hori. Horrenbestez, euskal ekonomiak batez beste urteko % 2,8ko hazkundearekin itxi zuen bosturtekoa.

**Aurtengo urterako eta hurrengorako, joera horrek biurtekoan jarraitu egingo duela aurreikusi da, eta hazkunde txikiagoarekin jarraituko duela, BPGren % 2,2koa eta moteldu egingo litzatekena 2020an, % 2,0ren inguruan kokatuz. Horri esker 27.000 enplegu inguru sortuko lirateke 2018tik 2020ra bitartean, eta langabezia-tasa, batez beste, 1,9 p.p. jaitsiko litzateke eta % 8,1an kokatuko datorren urtean.** Joera hori eragin duten faktoreak dira: barne-eskariari dagokionez, kontsumo pribatuak hazkunde txikiagoa izatea, eta hori bat letorke bere errotikako ezaugarrien joerarekin; eta, kanpo-eskariari dagokionez, eta testuingurua oraindik nahiko aldekoa eta goranzko joeraduna bada ere, duela zenbait hilabete zehaztutakoa baino dinamismo gutxiago espero izatea, atzeritarren ondasun eta turismo-zerbitzuen eskarian eta, bereziki, eurogunearen aldetik. Bilakaera hori laguntzen duten faktoreen artean nabarmentzen dira, batetik, urteko bigarren erdian txikitzea jo lezaken petrolioaren prezioa eta, bestetik, diru-politika moldakorra. 2018tik 2020rako epean izango den hazkundeak bidea emango du biztanleko BPG urteko % 2,0ra handitzeko, baina erkidegoak ez ditu berreskuratuko, ez krisi aurreko enplegu maila (2020. urte amaieran 5,5 p.p.-eko aldea izango du 2008koarekiko), ez eta langabezia-tasa ere (1,3 p.p. gorago kokatuko da).

### 2018an industriaren ekarpena murrizteak eragin zuen hazkundea 2017koa baino txikiagoa izatea

**Eskualdeko BPGren 2018ko hazkundeari buruzko datuek, INEk argitaratutakoek, berretsi egin dute moteltzea,** azken hirurtekoan behatutako batezbestekoa baino puntu portzentual bat beherago kokatu baita, eta ziklo hedakor honetan hazkunde positiboko lehen urtean baino bi hamarren eskas gorago (% 2,0 u/u 2014an). Eskariaren ikuspegitik, hazkundearen ahultzea txikiagoa izatea lotuta dago, bai kontsumo pribatuan eta bai publikoan<sup>4</sup>, bilakaera iragarritakoa baino okerxeagoa izatearekin eta, horrez gain, eskualdearen kanpo-merkataritzak ere susperraldi txikiagoa izatearekin, bereziki, ondasunen esportazioei dagokienean.

**Eskaintzaren esparruan, 2018an jardueraren hazkundeari egindako ekarpen positibo nagusia, 1,5 p.p., zerbitzu pribatuei dagokiena da:** horietatik 0,7 p.p. merkataritza, ostalaritza eta garraioaren agregatuari dagozkio. Eraikuntza, zerbitzu publiko eta industriak batera egindako ekarpena baino zertxobait txikiagoa da, 4, 3 eta 2na hamarreneko ekarpenak egin baitzituzten horiek, hurrenez hurren.

**Hazkunde-diferentziala Espainiaren aldekoa izan zen, zerbitzu publikoek bilakaera hobea izan zutelako, bai eta gainerako zerbitzu pribatuek ere (bi hamarren dagozkio bakoitzari); industriak, eraikuntzak eta merkataritza, ostalaritza eta garraioaren agregatuak euskal hazkundeari Espainian adinako ekarpena egin zioten 2018an** (ikusi 2.1 Grafikoa). Euskal industriaren hazkunde txikiagoa nabarmendu behar da (+% 0,6 u/u, Espainian baino puntu erdi gutxiago, eta 2017ko hazkunde baino 4,6 p.p. beherago): eta industriaren pisua ia 10 p.p. handiagoa izanik Euskadiko BPGn, ekarpena bina hamarrenekoa izan zen bi kasuetan. Alde handi samarra 2017koan Euskadin izandakoarekin, orduan 1,3 p.p.-eko hazkunde ekarpena egin baitzuen industriak.

2: 2019ko apirilaren 30ean, autonomia-erkidegoek izandako hazkundeari buruzko lehen estimazioa argitaratu zuen INEk, 2018ko Espainiako Eskualde Kontabilitatearen arabera. Ikusi <http://www.ine.es/daco/daco42/daco4214/cntr0119a.pdf>

3: Ikusi otsaileko aurreikuspenekiko konparazioa hemen: <https://www.bbva.com/publicaciones/espana-crecimiento-del-pib-regional-de-2018>

4: <https://www.diariovasco.com/economia/gobierno-vasco-gasto-20190404002853-ntvo.html>

2.1 Grafikoa BPGren hazkundera 2018an eta sektoreen ekarpenak (% u/u eta p.p.)



Fuente; BBVA Research INEn oinarrituta


**BPGn hazkunde txikiagoa izatea bat etorri zen iazko urtean euskal industria-produkzioa moteltzearekin.** Industria-produkzioaren indizeak % 0,4ko gorakadarekin (u/u) itxi zuen urtea, eta aurreko urtean baino 4. p.p. beherago kokatu zen, beraz. Hala, urtean, hiruhilekotik hiruhilekorako lau hazkunde negatibo izan zituen jarraian. Lehen seihilekoan izandako jaitsierak (-% 0,6 h/h batez beste, UEEZ) areagotu egin ziren bigarrenean (% -0,8 h/h UEEZ 2018ko 2. seihilekoan). Kontsumo-ondasun iraunkorren sektoreak, sektore energetikoak eta bitarteko ondasunenak ez zuten bilakaera onik izan, hurrenez hurren, % 8,4ko, % 4,9ko eta % 0,6ko ererikoak izan baitituzte; ez zituen ereriko horiek orekatu ekipamendu-ondasunen gorakadak (+% 3,8 u/u)<sup>5</sup>. Gasteizko automobil-lantegi nagusiko produkzioan urrian eta abenduan izandako geldialdiak<sup>6</sup> lagungarri gertatu ziren ereriko horietarako, eta irailaren 1ean indarrean sartu ziren WLTP emisioei buruzko arauetako aldaketek baldintzatu zituzten horiek<sup>7</sup>. **Bestalde, zerbitzuen sektoreko jarduera-indizearen kasuan (ZSJI), hazkundera nabarmena izan zen, % 7,6koa batez beste 2018an, Espainiakoa baino 1,3 p.p. handiagoa; baina bilakaerak beheranzko joera erakutsi zuen eta urteko azken hiruhilekoan, gutxitu egin zen (-% 1,0 h/h) hirugarrenarekiko.**

5: 2015. urtea oinarri hartuta INEk zehaztutako Industria Produkzioaren Indizearen arabera, tarteko ondasunen eta ekipamendu-ondasunen haztapenak % 44,2koa eta % 32,1ekoa izan dira, hurrenez hurren; tarteko ondasunetan, Espainiako autonomia-erkidegoetako handiena, eta, ekipamendu-ondasunetan, bigarren handiena, Nafarroa baita lehena.

6: <https://www.noticiasdealava.eus/2019/01/14/araba/mercedes-reduce-su-produccion-en-2000-unidades-y-parara-tres-dias-en-febrero>


7: [https://cincodias.elpais.com/cincodias/2018/07/27/companias/1532690038\\_135719.html](https://cincodias.elpais.com/cincodias/2018/07/27/companias/1532690038_135719.html). Zehazkiago aztertzeko, ikusi 2018ko lehen seihilekoko kontsumo-egoera, hemen: [https://www.bbvaesearch.com/wp-content/uploads/2018/07/Revista\\_Situacion\\_Consumo\\_1S18.pdf](https://www.bbvaesearch.com/wp-content/uploads/2018/07/Revista_Situacion_Consumo_1S18.pdf)

2.2 Grafikoa BPGren hazkundera MICA-BBVA ereduaren arabera (h/h, %, UEEZ)



(e) Estimazioa.  
Iturria: BBVA Research

2.3 Grafikoa Euskadi: jarduera eta espektatibak Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren arabera (% muturreko erantzunen saldoa)



Iturria: BBVA

**Eskariari dagokionez, kontsumo-adierazleak nahiko dinamikoak izan ziren iazko urtean, nahiz eta urtearen azken aldera halako motelaldi bat izan zuten**, txikizkako salmentetan salbu. Inbertsioari dagokionez, dinamismo handiagoa ikusi zen, bai kapital-ondasunen inportazioetan, bai bizitegiz besterako eraikuntza bisatuetan. Dena den, esportazio errealek hazkunde txikiagoa izan zuten, eurogunean eta Latinoamerikan eskaria moteldu egin zelako, eta automobilgintzaren egoeratik. Hori guztia ziurgabetasun politiko handiagoko testuinguru batean gertatu zen, eta atzerriko turismoak hazkunde txikiagoa erakutsi zuen garai batean; Espainiaren hazkunde txikiagoan ere eragina izan zuen horrek eta, finean, huraxe da erkidegoaren bezero nagusia.

**2019ko jarduerari buruzko datu eta espektatibak oinarri hartuta, Euskadin BPGren hazkundeaz iazko urtekoaren antzekoa izango dela** dirudi: MICA-BBVA ereduaren<sup>8</sup> kalkuluen arabera, Euskadiko BPG % 0,6ra (h/h) bizkortu daiteke aurtengo lehen seihilekoan, iazkoan izandako ahultze bilakaeraren ondoren. Hala, Espainiarekiko hazkunde-diferentziala ia erabat desagertuko litzateke (ikusi 2.2. Grafikoa).

**Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren arabera, espektatibek negatiboak izaten jarraitzen dute hurrengo hiruhilekoari begira, iazko urtean okerrera egin ondoren.** 2019ko martxoko datuei erreparatuta, inkesta egin zitzaientatik bi herenek jarduera ekonomikoak egonkor eutsiko diola aurreikusi dute; dena den, motelaldi bat aurreikusten dutenak hazkunde ekonomiko aurreikusten dutenak baino bi aldiz gehiago dira. Horrela, erantzunen saldo garbiak negatiboak dira, bigarren hiruhilekoz segidan, bai oraingo hiruhilekoari begira eta bai 2019ko bigarren hiruhilekoan gerta daitekeenari begira (ikusi 2.3 Grafikoa).

8: Ikusi MICA-BBVA: A Factor Model of Economic and Financial Indicators for Short-term GDP Forecasting disponible aqui: <https://www.bbva.com/en/publicaciones/mica-bbva-a-factor-model-of-economic-and-financial-indicators-for-short-term-gdp-forecasting/>


## Kontsumo pribatuak bilakaera sendoari eutsi zion 2018an Euskadin, eta hazkunde txikiagoa izan du 2019ko lehen hiruhilekoan

**2018an, Euskadiko familien kontsumo-gastua suspertu egin zen zertxobait.** Nahiko behetik jarraitu zuen petrolioaren prezioak<sup>9</sup>, historikoki baxuak diren interes-tasei eutsi zitzairen, eta familien errenta sustatu zen, enpleguaren gorakadari esker; horrek guztiak kontsumo pribatua bizkortu zuen, eta, horri esker, oro har Espainian baino zertxobait gehiago hazi zen. Adierazle partzial nagusien artean, txikizkako salmentetan iazkoekin alderatuta gertatu zen hobekuntza nabarmendu zen, bai eta ZSJIn ere, nahiz eta urtearen bigarren zatian joera okerxeagoa sumatu bi kasuetan. Matrikulazioetan, urte arteko hazkundera izan zen urte amaieran, nahiz eta azken hiruhilekoan nabarmen behera egin; diesel motorren emisioen gaineko lege-aldaketan ondorio izan zen, hain zuzen, erorikoa. .

**2018an, Euskadiko barne-kontsumoak batez beste antzeko erritmoa izan zuen bi sei hilekoetan, eskualdeko kontsumo-adierazle sintetikoak islatutakoaren arabera (ISCR-BBVA<sup>10</sup>), eta % 0,5en inguruko gorakadak izan zituen (h/h, UEEZ);** hazkunderok handiagoak izan ziren urteko lehen eta hirugarren hiruhilekoetan (ikusi 2.4 Grafikoa). Ildo horretan, 2018an urtetik urterako hazkundera % 2,5ekoa izan zen Euskadin, aurreko urtean baino 0,2 p.p. handiagoa, batez beste estatuan gertatutakoaren kontrara (% 2,3 eta % 2,5 u/u, hurrenez hurren).

**2019ko lehen erdian, kontsumoak moteldu egingo luke bere hazkundera eta, batez beste, % 0,4ko hazkundera izango luke (h/h, UEEZ); gainera, seinale mistoak lirateke hainbat adierazle partzialetan** (eskura ditugun datuak zenbait estimazioekin osatuta). Alde batetik, matrikulazioetan halako susperraldi bat ikusi da lehen hiruhilekoan, Eusko Jaurlaritzak ibilgailu eraginkorren esparruko inbertsioetarako martxoan abian jarritako laguntza-programaren testuinguruan<sup>11</sup> eta, ziurrenik, zuzkidura hori 2019ko bigarren hiruhilekoan amaituko da. ZSJk ere gora egin zuen 2019ko lehen hiruhilekoan, ia % 2,0ra iritsi arte (h/h, UEEZ), aurreko hiruhilekoan hazkunde txikixeagoa izan ostean eta txikizkako salmentetan gertatutakoaren kontrara (ikusi 2.5 Grafikoa).

2.4 Grafikoa Eskualdekako kontsumo-adierazle sintetikoa, ISCR (% h/h, UEEZ)



(e) Estimazioa, eskura dugun informazioaren arabera.  
Iturria: BBVA Research INEn oinarrituta


9: EAEko etxeek beren gastutik zati txikiagoa eskaintzen diote garraioari Espainian batez beste baino. Dena den, oso antzekoa da eskualdeko ekonomiak petrolioaren prezioaren aurrean duen sentiberatasuna, sektorearen espezializazioagatik, batez ere energiaren kontsumoan. Ikusi BBVA Research, Observatorio Regional 1H17, [hemen](#).

10: Kontsumo-adierazle sintetikoa eskualdeko gastu partzialen adierazle nagusietatik abiatuta osatzen da: txikizkako salmentak, ibilgailuen matrikulazioak, zerbitzuen sektorearen jardura-indizea, kontsumo-ondasunen inportazioak, erregaiak eta barne-kontsumo nazionala. Adierazlea osatzeko metodologia osagai nagusien azterketan oinarritzen da. Informazio gehiago izateko, ikusi: R.1 ¿Afecta la evolución de la demanda doméstica al crecimiento de las exportaciones? In Situación España, 4 Trimestre 2015, BBVA Research. [aquí](#)

11: <http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia/2019/el-plan-renove-de-euskadi-para-vehiculos-contemplara-las-operaciones-que-se-realicen-desde-el-1-de-marzo/>



2.5 Grafikoa Kontsumo pribatuaren adierazle nagusien hazkunde eta aurreikuspenak (% h/h, UEEZ)




(e) Estimazioa, eskura dugun azken informazioaren arabera.  
Iturria: BBVA Research INEn oinarrituta

## 2018an autonomia-erkidegoak gastuari eutsi dio

**2018. urte amaierako datuek berretsi egin dute Eusko Jaurlaritzak aurreko urteetako politika fiskalaren antzekoa izan duela.** Hala, euskal administrazioak azken kontsumoan izandako gastuak % 2,4ko hazkundera (u/u) izan du, batez beste autonomia-erkidegoetan behatutakoaren azpitik kokatuz (+% 3,9 u/u). Ildo berean, Eusko Jaurlaritzaren inbertsioak % 2,2ko hazkunde-eritmoari (u/u) eutsi zion 2018an, orotara autonomia-erkidegoetan erregistratutakoa (+% 5,4 u/u) baino eritmo apalagoa.


Aurrekontua gauzatzeaz eskuragarri dagoen azken informazioaren arabera, **gastuaren esparruko dinamikan neurritasuna** suma liteke **2019ko lehen hilabeteetan**.

2.6 Grafikoa Autonomia-erkidegoak eta Eusko Jaurlaritza: azken kontsumo nominalari dagokion gastua\* (aldaketa %, u/u)



\* Azken kontsumo gastu nominalari dagokion hurbilketa kapital finkoaren kontsumoa kanpoan utzita. (a) aurrerapena  
Iturria: BBVA Research Ogasun Ministerioan oinarrituta

2.7 Grafikoa Autonomia-erkidegoak eta Eusko Jaurlaritza: kapital nominalaren erakuntza gordina (aldaketa %, u/u)



(a) Aurrerapena.  
Iturria: BBVA Research Ogasun Ministerioan oinarrituta

## Lizitazioa suspertu egin da 2019ko lehen hiruhilekoan, iaz behera egin ondoren

**Obra publikoaren lizitazioa murriztu egin zen Euskadin 2018an, aurreko urteko aurrerapenaren ostean.** Iazko urtean, lizitazioa uzkuritu egin zen 2017koarekiko, % 25,8 uzkuritu ere; aldiz, % 31,1eko aurrerakada eman zuen Espainian. 2017ko datuekin alderatuta, eskainitako obra publikoak atzera egin zuen hiru eskualdeetako bat izan zen Euskadi; Aragoi eta Kantabria izan ziren beste biak. Urte arteko datuetan behera eginda ere, BPGrekiko lizitatutako kopurua Espainiako batezbestekoaren gainetik kokatu zen 2018an ere (% 1,6 vs % 1,4), eta halaxe ari da gertatzen, urtez urte, 2009az geroztik.


**Obra publikoaren beheraldi horrek eraikuntzari nahiz obra zibilarri eragin zien iazko urtean.** Lehen kasuan, 2017ko datuekin alderatuta, % 29,2ko gainbehera izan zuen, Espainian izan zen gorakadaren kontrara (+% 20,8); ez dator bat, ezta ere, aurreko urteko eskualdeko datuarekin, eraikuntza % 45 hazi baitzen urtean. Bestalde, obra zibilarri % 24,6 gutxitu zen eta, aldiz, % 36,8 hazi zen Espainian; berriz ere, 2017an jazotakotik urrun, ordukoan bikoiztu egin baitzen alor horren lizitazioa. Obra motari dagokionez, kontu-sail nagusiak eraikuntzara eta errepedesarea hobetzera zuzendutakoak izan ziren 2018an, eta lizitatutako zenbateko osoaren ia % 40 dagokie. Urbanizazioari, trenbide-sareari eta obra hidraulikoari dagozkien kontu-sailak dira hurrengoak (zenbateko osoaren % 14, % 10 eta % 9, hurrenez hurren). Eraikuntzan (kontuan hartuta iazko urtean obra publikoko lizitazioaren % 24 bildu zuela), administrazioa eta etxebizitzetara zuzendutako eraikinetako kontratuen zenbatekoak nabarmendu ziren.

**Obra publikoak hiru lurraldetatik bitan hazi zen 2018an.** Bai Araban eta bai Bizkaian, bilakaera positiboa erakutsi zuen 2017koarekiko. Lehen kasuan, % 43 (u/u) hazi zen eta, bigarrenean, % 11,5. Gipuzkoan okerrera egin zuen, ordea, % 55,6 murriztu baitzen (u/u).

**Erakunde finantzaileei erreparatuta, 2018ko uzkurraldia batez ere estatuak egindako eragiketetan gertatu beheraldiaren ondorio izan zen.** Hala, lurralde-erakundeek lizitazioko zenbatekoa % 3,0 areagotu zuten 2017koarekiko eta, aldiz, estatuak % 78,0 murriztu zuen berea. Beraz, estatuaren pisua % 10,6ren inguruan kokatu zen lizitazioaren arloan, 2013. urteaz geroztik izandako proportziorik txikiena.


**Obra publikoari dagokionez, positiboak dira 2019ko hasierako datuak.** Urte honetako lehen hiru hilabeteetan, lizitazioa % 31,6 hazi zen Euskadin, Espainian baino 10,5 p.p. gehiago; batez bestekotik gorako hazkundea izan duten zortzi autonomia-erkidegoetako bat da (ikusi 2.8 Grafikoa). Obra motari dagokionez, urte artean aurrerapen handiagoa sumatzen da eraikuntzan (% 108,3) obra zibilean baino. 2019ko lehen hiruhilekoan, Bizkaian baino ez zuen gora egin obra publikoaren esparruko lizitazioak (+% 109,0 u/u). Araban eta Gipuzkoan, lizitazioaren uzkuritzea % 18,6koa eta % 28,6koa izan zen u/u, hurrenez hurren (ikusi 2.9 Grafikoa). Gainera, 2019ko lehen hiru hilabete horietan, estatuak lizitatutako zenbatekoa % 78,0 hazi zen u/u, eta, aldi berean, lurralde-erakundeen kasuan, gorakada % 11,0koa izan zen; bi kasuetan, 2018an izandakoak baino handiagoak.

2.8 Grafikoa Lizitazioa obra publiko motaren arabera: Ekarpinak urte arteko hazkundeari 1H19 (p.p.)



Iturria: BBVA Research Sustapen Ministerioan oinarrituta

2.9 Grafikoa Euskadi: Lizitazioaren esparruko aurrekontua lurralde historikoetan 1H19 (Milioi € eta %, u/u)



Iturria: BBVA Research SEOPANen oinarrituta

## Ekipo-ondasunen inportazioa eta bizitegiz besterako eraikuntzen bisatuak suspertu egin ziren iaz eta 2019ko lehen hilabeteetan

Inbertsioaren esparruko produkzioak zantzu positiboak islatu ditu Euskadin 2018an. Alde batetik, ekipo-ondasunen inportazioek gora egin zuten laugarren urtez segidan, 2017ko erritmoaren antzekoan (+% 6,1 u/u, Espainiako batezbestekoa baino 4,4 p.p.gehiago). 2018an, inportazio horiek 4 mila milioi euroko zenbatekoa gainditu zuten lehen aldiz eta erkidegoko BPGren % 5,7 beste da hori. Azken bost urteotan, susperraldia hasi zenetik, alegia, ekipo-ondasunen inportazioa, batez beste, BPGren % 5,2 ingurukoa izan da, bai Espainian eta bai Euskadin.

Bestalde, bizitegiz besterako eraikuntza bisatuei dagokienez<sup>12</sup>, batez besteko bilakaera baino hobea izan dute azken hilabeteotan, iazko urtean gora egin eta bi urtetako erorikoak atzean utziz (-% 11,4 u/u batez beste). 2011tik izan duten mailarik gorenera iritsi dira. Sustapen Ministerioak adierazi zuen bizitegiz besterako erabilerarako bisatutako azalera % 87,2 hazi zela 2018an, Espainian erregistratutakoa baino gehiago (+% 24,5). Dena den, esan beharra dago 317 mila metro koadroko azalera horren erdia hilabete berean bisatu zela, irailean. Erabileren ikuspegitik, herena baino zertxobait gehiagoko zatia dagokio merkataritza eta biltegi-erabilerari; laurdena, industria-erabilerari, eta ia bostena, garraio-zerbitzuei.


**Aurtengo urteko datuek joera horiek berresten dituzte:** alde batetik, kapital-ondasunen inportazioak bizkortu egin ziren urte arteko datuetan 2019ko lehen hiruhilekoan, bai eta otsailera bitarteko bizitegiz besterako bisatuak ere. Hori guztia, ziurgabetasun handiko testuinguru batean gertatu da, baina baldintza finantzario nahiko lasaieran, interes-tasa baxuak lagun.

**Ikuspegi kualitatiboago batetik, 2019ko lehen hiruhilekoaz Euskadiko Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestak emandako emaitzek erakusten dute behera egin dutela espektatibek;** dena den, ikuspegi positiboari eutsi zaio eraikuntzako inbertsioaren adierazleetan eta, gainerak sektoreetan, joera neutrala ageri da. Industria-sektoreko eta zerbitzuetako inbertsioen kasuetan, hurrenez hurren azken bederatzi eta hamaika hilabeteetako erantzun-saldo garbi txikiak dagozkie<sup>13</sup>. Espektatibak leuntze hori bat dator iaz euskal ekonomia eta, bereziki, industria gutxiago haztearekin (ikusi 2.11 Grafikoa eta 1. Errekoadroa).

12: Besteak beste, merkataritza eta biltegiak, nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak, industriara, bulegoetara, turismora eta aisialdira, garraio-zerbitzuetara eta abarretara zuzendutako eraikinak.


13: Datuek ez dute urtarokotasun-eraginaren zuzenketarik, lagina mugatua baita.

2.10 Grafikoa Bizitegiz besterako eraikuntza bisatuen hazkundea (m<sup>2</sup>) eta ekipo-ondunen inportazioa (% u/u)



\* Bisatuetan otsailara arteko informazioarekin eta inportazioetan martxora artekoarekin.  
Iturria: BBVA Research Sustapen Ministerioan eta Datacomexen oinarrituta

2.11 Grafikoa Euskadi: Inbertsioaren bilakaera sektorez sektore Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestan (erantzuten saldoak, %)



Iturria: BBVA

## Etxebizitzen salmenten hazkundea zertxobait apaldu da 2018an

**Bosgarren urtez segidan, etxebizitzen salmenta hazi egin zen Euskadin, baina hazkunde hori aurreko urtean baino apalxeagoa izan da.** Sustapen Ministerioak emandako datuen arabera, aurreko ekitaldian ia 23.000 etxebizitza saldu ziren, aurreko urtean baino % 9,9 gehiago; hala ere, hazkundea Espainiako batezbestekoa (%9,3) baino apur bat handiagoa izan da. Hiruhileko dinamikak hazkunde nabarmena islatzen du 2018ko lehen hiruhilekoan, baina ez zitzaion joera horri eutsi urteko erdialdeko hiruhilekoetan, behera egin baitzuten salmentek urtearen bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan; dena den, gora egin zuten berriro 2018ko azken hiruhilekoan. Batez beste, 2018an %3,1eko h/h hazkudea izan zuten salmentak (UEEZ), 2.12 Grafikoak erakusten duenez.

**2018an, etxebizitza eskariaren osaketari begiratuta, zenbait aldaketa ikusten dira aurreko urtekoarekin alderatuta,** nahiz eta probintziako egoiliarren proportzio altuari eutsi, etxebizitzak erosten dituztenen artean. Etxebizitza nagusiari lotutako erosketen pisuak (etxebizitza dagoen probintza bereko egoiliarrek egindakoei dagokiena) handia izaten jarraitu zuen: % 90,6, Espainian batez beste baino 20 p.p. gehiago, nahiz eta 2017ko ehunekoarekiko 2 p.p.galdu. Segmentu honetako eragiketek % 7,8ko hazkundea izan ondoren gainera (estatuan baino 3 p.p. gutxiago batez beste). Etxebizitza kokatzen den probintziatik kanpoko egoiliarrek egindako salerosketa-eragiketak asko hazi ziren iaz: % 65,3; 2 p.p. handitu zuten euren pisua eta, hala, % 6,0ra iritsi ziren. Espainian batez beste atal horrek izandako aurrerapena bain askoz handiagoa da, segmentu hori % 10,8 hazi baitzen Espainian; baina han, Euskadiko kasuari dagokiona baino bi aldiz pisu handiagoa du (eragiketen % 13,5 baita). Azkenik, atzeritarren eragiketak % 3,4 hazi ziren u/u, Espainiako batezbestekoaren ildo beretik (+% 3,0), eta erkidegoan nahiko pisu txikiarekin jarraitu zuen atal honek (kopuru osoaren % 3,0 baino handixeagoa).


**Herrialdeka aldeak egn arren, oro har, salmentak areagotu egin ziren iazko urtean.** Araban eta Gipuzkoan, iazko urtean baino gutxiago hazi ziren. Bizkaian, berriz, aurreko urtean baino hazkundea handiagoa izan zuten (ikus 2.1 Koadroa). 25.000 biztanletik gorako udalerriei dagokienez, salmentak 15etik 9tan hazi ziren. Hazkunde handienak Erreterria, Santurtzi, Portugaleta eta Galdakaori dagozkie eta, 2017koekin alderatuta, % 40tik gorako hazkundeak dituzte esparru honetan. Aldiz, salmentek behera egin zuten Durangon, Sestaon, Eibarren eta Leioan. Barakaldon eta Donostiako eragiketak egonkortu egin ziren.

**Euskadin, etxebizitzaren prezioak Espainian baino bilakaera okerragoa izan zuen. Sustapen Ministerioak bildutako tasazio-balioen arabera, etxebizitzaren prezioa % 1 jaitsi zen 2018an, 2017koarekin alderatuta, eta 2.365 €/m<sup>2</sup> inguruan kokatu zen.** Aldiz, Espainian % 3,4 hazi zen etxebizitzaren prezioa iaz. Lurraldekako ikuspegitik, etxebizitzaren prezioak hiruretan egin zuen behera, baina Bizkaia nabarmentzen da batez ere: etxebizitzaren metro koadroko prezioak % 2,1eko balio-galera izan zuen, tasatzaileek emandako datuen arabera (hala dio 2.1 Koadroa). Udalerriei dagokienez, 25.000 biztanletik gorako 15 hirietatik 11tan egin zuen gora etxebizitzaren prezioak iazko urtean. Gorakada nabarmenenak (%2-3 bitartekoak) Eibarren, Donostian, Barakaldon, Getxon, Leioan, Bilbon eta Erreterrian izan ziren. Egonkor eutsi zion prezioak Irunen eta Galdakaon, eta zertxobait behera egin zuen Sestaon eta Santurtzin.

Bestalde, 2019. urtearen hasiera oso desberdina izan da, etxebizitzaren prezioak izan duen bilakaerari erreparatu gero. **Urte arteko datuetan segidako lau hiruhilekotan behera egin ondoren, % 1,9 igo zen etxebizitzaren prezioa 2019ko lehen hiruhilekotan, eta metro koadroko prezioa 2.405,6 euroan kokatu zen erkidegoan.** Herrialdeen ikuspegitik, dinamismo handiena Araban izan zuen: prezioek % 4,7ko gorakada izan zuten u/u. Gipuzkoa dator gero (% 2,4), eta Bizkaia ondoren (% 1,5). Udalerri handietan, oro har prezioek gora egin zuten, bereziki Irunen eta Santurtzin: % 10 baino gehiago (u/u). Metro koadroko batez besteko prezioetan, beheranzko joera soilik Portugaleten eta Galdakaon eman zen.


**Euskadin 2018an sinatutako etxebizitza berrien bisatuak batez beste Espainian baino zertxobait gutxiago hazi ziren, eta aurreko urtean baino modu apalagoan.** Hala, etxebizitza berriak egiten hasteko 6.222 baimen sinatu ziren, 2017an baino % 20,3 gehiago; baina batez beste Espainia osoan izandako hazkundearen (+% 24,7) azpitik. Hiruhilekoka aztertuta, bilakaera aldakorra ikusten da urtean zehar: erdialdean, gorakadak sumatu dira, hirugarren hiruhilekotan batik bat, baina doikuntzak ere izan dira lehenengoan eta laugarrenean (ikus 2.13 Grafikoa). Probintziei dagokienez, hiru lurraldeetan ugaritu ziren bisatuak, eta Bizkaikoa nabarmentzen da batik bat, 2.1 Koadroan ikus daitekeenez.

2.12 Grafikoa Euskadi: etxebizitzaren salmenta (UEEZ)



Iturria: BBVA Research Sustapen Ministerioan oinarrituta

2.13 Grafikoa Euskadi: etxebizitza berrien eraikuntzarako bisatuak (UEEZ)



Iturria: BBVA Research Sustapen Ministerioan oinarrituta

## 2.1 Koadroa Euskadi: higiezin merkatuko aldagaiak, lurralde historikoen arabera (% u/u)

	Etxebizitza salmentak				Etxebizitzen prezioa		Etxebizitza berrien bisatuak			
	2017		2018		2017	2018	2017		2018	
	Etxebizitzak	% u/u	Etxebizitzak	% u/u	% u/u	% u/u	Etxebizitzak	% u/u	Etxebizitzak	% u/u
Álava-Araba	2.982	23,9	3.363	12,8	1,0	-0,4	526	96,3	637	21,1
Gipuzkoa	6.971	13,5	7.285	4,5	1,8	-0,6	2.003	56,1	2.279	13,8
Bizkaia	10.956	7,6	12.331	12,6	0,2	-1,2	2.643	4,4	3.306	25,1
<b>Euskadi</b>	<b>20.909</b>	<b>11,6</b>	<b>22.979</b>	<b>9,9</b>	<b>0,7</b>	<b>-1,0</b>	<b>5.172</b>	<b>26,7</b>	<b>6.222</b>	<b>20,3</b>
Espainia	532.261	16,3	420.074	10,5	3,2	3,4	80.786	26,2	100.733	24,7

Iturria: BBVA Research Sustapen Ministerioan oinarrituta

## Esportazio errealak gutxiago hazi ziren 2018an, eta murriztu egin dira orain artean aurten, automobilgintza-sektoreko jaitsierekin


Euskadin, ondasunen esportazioak % 1,3 hazi dira (u/u) 2018an termino errealetan eta, Espainian berriz, halako geldialdi bat sumatu zen alor horretan. Hala 2017ko hazkundera baino 8,4 p.p. beherago kokatu zen, azken hiru urteotako hazkunderik txikiena erkidegoan. Energetikoak ez diren ondasun errealei soilik erreparatuta<sup>14</sup>, hazkunderaren moteltze hori zertxobait txikiagoa baino ez zen izan: 2017ko +% 7,8tik iazko urteko +%1,7rako; beraz, apur bat txikiagoa baino ez litzateke Espainiarekiko arrakala (ikusi 2.14 Grafikoa). Dena den, Euskadiko esportazioen bilakaera nahiko irregularra izan zen 2018an, urtarkotasuna zuzenduta salmenten jaitsierak izan baiziren urteko bigarren eta azken hiruhilekoetan (azken hori Gasteizko automobilgintza-lantegiko geldialdiekin bat, lehen ere jada aipatu denez).

**Erdi-manufakturrek, ekipo-ondasunek eta produktu energetikoen hiru puntu portzentualeko, biko eta bateko ekarpenak egin zizkieten Euskadik 2018an atzerrian egindako salmentei. Aldiz, automobilgintza sektoreak 1,3 p.p. kendu zizkion.** 2017. urtearekin alderatuta, hazkunde txikienak ekipo-ondasunetakoa eta automobilgintzakoa izan zen (3. p.p. gutxiago bakoitzak); baina produktu energetikoen ekarpena ere txikiagoa izan zen. Bereziki, dieselari buruzko araudi berriak eragindako ziurgabetasunak eragina izan zuen automobilgintza 2018an, uztailean oraindik Gasteizko lantegirako errekor urtea izango zela aurreikusten baitzen<sup>15</sup>. **2019ko lehen hiruhilekoan, Euskadiko esportazioak murriztu egin ziren ondasun energetikoenak medio eta, aldiz, energetikoak ez diren esportazioak ez atzera ez aurrera gelditu ziren**, aurreko urteko joera berekin: automobilgintza sektorean beherakada eta hazkundera ekipo-ondasunetan eta erdi-manufakturretan (ikusi 2.15 Grafikoa).

14: Ondasun energetikoak azken bosturteko euskal esportazio nominalen % 10,5 dira, Muskizko findegiaren jarduerarekin lotuta. Datuen aldakortasuna ikusita eta aurrez inportatutako ondasun energetikoetan oinarritzen direnez, interesgarria da eragin hori bakartzea.


15: Ikusi honetaz: <http://www.expansion.com/pais-vasco/2018/07/10/5b43c1c3268e3e6d1b8b45bb.html>

2.14 Grafikoa Euskadi eta Espainia: energetikoak ez diren esportazio errealak (1H14=100, h/h, UEEZ)



Iturria: BBVA Research Datacomexen oinarrituta

2.15 Grafikoa Euskadi: ondasun esportazioaketa sektorekako ekarpenak (% u/u, p.p.)




Iturria: BBVA Research Datacomexen oinarrituta

**Iazko urtean Euskadik kanpoan egindako salmenten hazkundera murriztea eta 2019ko lehen hiruhileko erorikoa euroguneko, Europako gainerako herrialdeetako eta Latinoamerikako eskaria apaltzeak azalduko lukete.** 2017an esportazioen hazkunde nominalean 9,4 p.p.-eko ekarpena egin ostean, Europako herrialdeek eta Latinoamerikak 4 p.p.-eko ekarpena egin zieten soilik euskal esportazioen gorakadari. Horietatik 3 p.p. euroguneari dagozkio (erdi- helmuga da, eta aurreko urtean baino 2 p.p. gutxiagoko ekarpena dagokio); Europako gainerako herrialdeek p.p.-az azpiko ekarpena egin zuten (urtebete lehenago, ia 3 p.p.), eta geldialdi bat izan zen Latinoamerikara eta Asiara zuzendutako salmentetan (hurrenez hurren, +1,7 p.p. eta 0,4 p.p.-eko ekarpenak egin zituzten aurreko urtean, ikusi 2.16 Grafikoa). Era berean, Ameriketako Estatu Batuetara eta Kanadara zuzendutakoak ere murriztu egin ziren 2019ko lehen hiruhilekoan, eta 1,2 p.p. -eko ekarpen negatiboa izan dute.

**Herrialdez herrialde, Euskaditik Erresuma Batura eta Turkiara egindako salmentetan behatutako aldagaiak nabarmendu dira.** *Brexit* prozesu betean, Erresuma Batura zuzendutako ondasunen salmentak areagotu egin ziren 2018an, bigarren urtez segidan (+% 13,9 u/u termino nominaletan, 210 milioi € gehiago), batik bat ekipo-ondasunak (garraio-materiala bereziki, bai trenbideetako eta bai errepide bidezko salgaiei dagokiena) eta erdi-manufakturak (burdina eta altzairua, eta beste batzuk, papera eta pneumatikoak, kasu); Afrikarekin batera, horixe izan da 2019ko lehen hiruhilekoan hazkunde handiena izan zuen helmuga. Britainiar merkatura euskal esportazioen % 6,8 zuzendu ziren azken urtean (1.730 milioi €, eskualdeko BPGren % 2,3 beste); maximo historikoa da. Aldiz, Euskaditik Turkiara zuzendutako salmentetan, beheraldi nabarmena izan zen 2018an, % 23,1ekoa (2017an, 459 milioi €, eta iazko urtean, 354 milioi); ekipo-ondasunen salmentak murrizteak eragindako erorikoa da batez ere (-% 37,9), lira turkiarraren drepresiazioa medio.


**Bestalde, ondasun errearen inportazioak ere apaldu egin zuen bere hazkunde-erritmoa iazko urtean, eta % 0,7ra jaitsi zen (u/u), Espainian baino hamarren bat gutxiago;** 2017an, aldiz, % 13,6ko hazkundera izan zuen (ikus 2.17 Grafikoa). Hazkunde hori (ikuspegi nominaletik, 8 p.p. baino zertxobait gehiago) inportatutako produktu energetikoen eta erdi-manufakturen ondorio izan zen (ia 4 eta 2 p.p. hurrenez hurren), eta horitako bakoitzak inportatutako ondasunen laurdena baino zertxobait gehiago adierazten du. Eskualdeko ondasunetan urteko superabit komertziala % 4,8 murriztea ekarri zuen horrek iaz, bigarren urtez segidan, 5.214 milioi €-ra iritsi arte; Euskadiko BPGren % 7,0 beste. Aurtengo lehen hiruhilekoan, inportazio errealak % 0,5 bizkortu ziren (h/h, UEEZ).

2.16 Grafikoa Euskadi: esportazioak helmuga-herrialdeka (hazkundeari ekarpenak, p.p.)



Iturria: BBVA Research Datacomexen oinarrituta

2.17 Grafikoa Euskadi eta Espainia: inportazio errealak (1H14=100, h/h, UEEZ)



Iturria: BBVA Research Datacomexen oinarrituta

## Turismoak errekorrak hautsi ditu berriro 2018an, baina apalxeagoa izan da hazkundera, batez ere Espainiako egoiliarrei dagokienez

**Iazko urtean, Euskadira etorritako bidaiarien eta ostatu-gauen kopuruek gaintu zituzten 3 milioiko eta 6 milioiko kopuruak, hurrenez hurren, eta % 3,4ko eta % 3,9ko hazkundeak izan zituzten osotara.**

Aurreko urtekakoak baino 1,9 p.p. eta 2,8 p.p. gutxiago beraz; baina turismoak markak jarri zituen berriro erkidegan, azken bost urteotako joera hedakorrarekin jarraituz. Dena den, bai bidaiarien sarreretan eta bai ostatu-gauean hazkundera moteldu egin dela ikusten da oro har, bai atzerritarren artean eta bai Espainiako egoiliarren artean ere; argiago azken kasu horretan, erkidegoko turismoaren bi heren direnak (ikusi 2.18 Grafikoa). Hoteletako prezio errealak suspertzen ari dira gainera, % 3,7 egin baitute gora (u/u).

### 2019an eskualdeko turismoan sumatutako zantzuek hazkunde hori apaldu egin dela berresten dute.


Oraingoz ezagutzen ditugun datuak oinarri eta aurreikuspenekin osatuta, bidaiarien kopuruak ia bere horretan iraungo luke, % 0,9ko hazkundearekin h/h UEEZ batez beste (urteko tasan % 3,6ko hazkundera); aldiz, hazkunde txikiagoa legokieke ostatu-gauei: % 0,3 h/h (% 1,2 gehiago urteko tasan). Bizitasun ekonomiko apalagoko eta kontsumo handiagoko testuinguru batean hori, bai Espainian eta bai Europan; eta halaxe islatzen da zerbitzu turistikoaren eskarian, bai Espainiako egoiliarren artean eta bai atzerritarrengan.

**Azken hamarkadan, turismoaren garapena bizkortu egin da eskualdean.** Krisiaren hasieratik, hoteletan eman ostatu-gauen kopurua % 56,3 hazi da Euskadin, batez beste Espainian baino 30 p.p. gehiago. Gainera, hazkunde horrekin batera, eskaintzaren hedatzea<sup>16</sup> eta okupazio maila hobetzea ere etorri dira. Iazko urtean eta aurten eskaintako tokien % 55 gaintu du okupazioak, eta Espainiako batezbestekoarekiko diferentziala 3 p.p.-tik behera murriztu du (ikusi 2.19 Grafikoa). Dena den, erkidego honetako turismoak gaur egun Espainiako bidaiarien % 3 eta ostatu-gauen % 2 baino gutxiago biltzen du.

16: Ikusi argitalpen honen aurreko edizioa, 16. orrialdea: <https://www.bbva.com/publicaciones/situacion-pais-vasco-2018/>




2.18 Grafikoa Euskadi: bidaiariak eta ostatu-gauak, hazkundeari ekarpenak jatorriaren arabera\* (p.p.)



1Q19: 2019an lehen lauhilekora arte 12 hilabetetan metatua  
Iturria: BBVA Research INEn oinarrituta

2.19 Grafikoa Hoteletako ostatu-gauak eta batez besteko okupazioa\* (2008=100 y %)



1Q19: 2019an, lehen lauhilekora arte 12 hilabetetan metatua  
Iturria: BBVA Research INEn oinarrituta

## Euskadiko lan-merkatuak dinamismoari eutsi zion iaz, baina badirudi 2019ko lehen erdian hazkunde txikiagoa izango duela

**Euskadin, Gizarte Segurantzako afiliazioa % 2,1 hazi zen 2018an, aurreko urtean bezainbeste eta Espainian baino 1 p.p. gutxiago.** Hazkundera handiagoa izan zen urte hasieran, eta beherantz egin zuen gero; guztira, 19 mila afiliatu irabazi zituen eskualdeak batez beste. Sektore guztietatik iritsi zen bultzada, zerbitzu publikoetatik nagusiki, eta, hein txikiagoan, jarduera profesionaletatik eta manufakturetatik, baina baita eraikuntzatik eta ostalaritzatik ere. Urtearen bigarren erdian, manufakturen ekarpenak behera egin zuen, bai eta zenbait zerbitzu pribaturen ere, hala nola merkataritzaren, garraioen eta ibilgailuen konponketen agregatuarenak (ikus 2.2 koadroa).

**Badirudi aurtengo lehenengo erdian afiliazioak hazkunde txikiagoa izango duela, 2018ko bigarren erdian izandako erritmo berean egin baitu gora.** Apirila arteko datuetan oinarrituta eta aurreikuspenekin osatuta, Euskadiko ekonomiak, batez beste, Gizarte Seguratasuneko alden % 0,5eko h/h hazkunderarekin itxi dezake sei hilekoa, aurreko sei hilekoan baino ia 9 mila afiliatu gehiagorekin (alegia, urtean 18 milako erritmoan, 2018an behatutakoaren antzekoa). Ekarpen handiena zerbitzu publikoetatik etorriko litzateke oraindik, baina baita manufakturetatik, eraikuntzatik eta ostalaritzatik ere.

**Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) eskualdeko lan-merkatuaren hobekuntza erakutsi zuen 2018an, afiliazioak erakutsitakoaren oso antzekoa:** % 2,1eko (u/u) hazkundera eta 19 mila enplegu ia. Sektoreak kontuan hartuz gero, BAI inkestak enpleguaren hazkunderaren erdia baino gehiago soldatapeko langile publikoei esleitzen die eta, eraikuntzan hazkundera gertatu bada ere, murrizketa gertatu da industriako enpleguan. 2019ko lehenengo hiruhilekoan, BAI inkestak hazkunderaren azkartzea erakutsi zuen urtarokotasun-eraginak zuzendu ondoren, zerbitzu pribatuen bultzadaren ondorioz (+% 1,3 h/h, UEEZ).

## 2.2 Koadroa Gizarte Segurantzako afiliazio hazkundeari egindako ekarpenak sektoreka (h/h, %, UEEZ)\*

	Euskadi					Espainia				
	1S18	2S18	2018	1H19	2H19*	1S18	2S18	2018	1H19	2H19*
Nekazaritza	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Erauzketa ind.eta energia	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Manufakturak	0,1	0,0	0,3	0,0	0,1	0,1	0,0	0,3	0,0	0,1
Eraikuntza	0,1	0,1	0,2	0,1	0,1	0,1	0,1	0,4	0,1	0,2
Merkat., garraioa eta konponk.	0,1	0,0	0,2	0,0	0,0	0,1	0,1	0,4	0,1	0,1
Ostalaritza	0,0	0,0	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,3	0,0	0,1
Komuni.Finantza eta higiezinak	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0	0,1	0,1	0,2	0,0	0,1
jarduera profesionalak	0,1	0,1	0,4	0,0	0,0	0,1	0,1	0,5	0,1	0,1
Zerbitzu publikoak	0,2	0,2	0,7	0,2	0,2	0,2	0,2	0,8	0,1	0,3
Gizarte zerb. eta Arte jard.	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,2	0,0	0,1
Gainerakoak (etxea barne)	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	-0,1	0,0	0,0
<b>Guztira</b>	<b>0,6</b>	<b>0,5</b>	<b>2,1</b>	<b>0,4</b>	<b>0,5</b>	<b>0,8</b>	<b>0,7</b>	<b>3,1</b>	<b>0,5</b>	<b>1,0</b>

Seihilekoen datuak, hiruhilekoen arteko batezbesteko hazkundek dira, eta 2018koak berriz, urte osokoari dagozkionak.

\* 2019ko bigarren hiruhileko datua apirila arteko informazioarekin kalkulatu da.

Iturria: BBVA Research Gizarte Segurantzaren oinarrituta.


**Enpleguaren hobekuntza erritmoan hiriburuak barne dituzten eskualdeak dira aitzindari<sup>17</sup>.** 2.20 Grafikoak adierazten duenez, azken 12 hilabeteetan, Arabako Lautada eta Donostialdea, hurrenez hurren, Bilbo Handiko afiliazioaren hazkundera baino 0,4 eta 0,2 p.p. gorago kokatu dira, eta erkidegoko batez bestekora iritsi da azken hori (% 2,0 u/u). Enpleguan pisu txikiagoa duten zenbait eskualde hiriburuen gainetik hazi diren arren azken urtean (Gorbeialdea Araban, edo Tolosaldea eta Goierri Gipuzkoan, industria-presentzia handiagoarekin), gainerako eskualde gehienak hiriak baino gutxiago hazi dira (adibidez, Durangaldea eta Arratia Bizkaian, edo Debagoiena, Debabarrena eta Bidasoa Behea Gipuzkoan.) Beste eskualde batzuek, berriz, enplegua galdu dute urte arteko datuei erreparatuta, eskualdean garrantzi handia duten sektoreek izandako arazoaren ondorioz (Aiaraldea, Arabako Errioxa edo Markina-Ondarroa, adibidez). Dena den, agregatuari dagokionez, enplegu garbien suntsiketa duten eskualdeek Euskadiko enplegu osoaren % 3 baino gutxiago biltzen dute.

**Donostialdeak eta Arabako Lautadak 1H08 aldiko afiliatuen kopurua gainditu dute; Bilbo Handia edo Euskadiko gainerako udalerrien agregatua, aldiz, ez dira oraindik orduko mailara iritsi.** 2.21 Grafikoak erakusten duenez, Arabako Lautadak 2018ko 3. hiruhilekoan berreskuratu zuen maila hura, Gipuzkoako hiriburuen eskualdeak baino urtebete geroago. Bestalde, azken urteko enplegu sorrera erritmoari eutsiz gero, Bilbo Handiak ez luke afiliazio-maila hori eskuratuko hurrengo urteko erdialdea baino lehen.

**Langabeziak behera egiten jarraitu du Euskadin, eta ia batez beste izandako % 10,0tik behera kokatu da jada:** 2018ko bigarren erdian eta aurtengo lehenengo hiruhilekoan, langabezia-tasa, batez beste, % 9,5ekoa izan zen, 2017ko % 11,3aren aurrean. Iaz, % 11,8ko murrizketa gertatu zen langabe kopuruan, 102 mila arte, biztanleria aktiboaren hazkunde testuinguruan (+% 0,6 u/u); kopuru horrek estatuan behatutakoa bikoizten badu ere, biztanleria aktiboak hamarkadako bigarren txikiena izaten jarraitzen du.


17: Hiriek etorkizuneko garapen ekonomiko eta sozialerako bultzatzaile gisa izango duten tokiaren azterketa egiteko, ikusi: <https://www.bbva.com/publicaciones/presentacion-el-futuro-de-las-ciudades/>

2.20 Grafikoa Euskadi: Gizarte Segurantzako afiliazioa bailaraka (% u/u en 1Q19)




Iturria: BBVA Research Gizarte Segurantzaren eta Eustaten oinarrituta

2.21 Grafikoa Afiliazioa bailaraka (1H08=100, UEEZ)



Iturria: BBVA Research Gizarte Segurantzaren eta Eustaten oinarrituta

Grafikoa 2.22 Euskadi: enplegu aldaketa sektoreka 2007 eta 2017 artean (milakotan)



Iturria: BBVA Research INEn oinarrituta (CRE)

**Krisia hasi zenetik hamarkada bat igaro denean eta hainbat urtez suspertu ondoren, enpleguak ez ditu oraindik aurreko hedapen-fasean lortutako mailak berreskuratu.** Euskadik enplegu-galera handia jasan zuen eraikuntzan eta industrian, bai eta, hein txikiagoan bada ere, merkataritzaren, ostalaritzaren eta garraioen agregatuan ere. Gainerako zerbitzu pribatuen eta, bereziki, publikoen dinamismoak hein batean konpentsatu zuen galera hori. Espainiako Eskualde Kontabilitateko datuetan oinarrituta, 2.22 Grafikoak enpleguaren aldaketa


aztertzen du Euskadin sektoreen arabera, 2007tik 2017ra arteko hamarraldian. Eskualdeko enpleguaren murrizketa garbia % 6,3koa izan zen (Espainian baino 2 p.p. gutxiago, eta 70 mila enplegu Euskadin), enplegua galdu zuten bi segmentu nagusien ondorioz. **Galerak eraikuntzan eta industrian gertatu ziren: 50 mila eta 51 mila enplegu garbi suntsitu ziren, hurrenez hurren**, hau da, 2007an zuten enplegu-kopuruaren erdia baino gehiago eta bosten bat (bi sektoreetan ere, Euskadin orotara Espainian baino beherakada txikiagoak izanik, 5,7 eta 1,1 p.p). Merkataritzako, garraioetako eta ostalaritzako agregatuetan ere enpleguak behera egin zuen (13 mila gutxiago), 2007ko enpleguaren % 4,7 galdu baitzuten (estatuko osoa baino 3,0 p.p. okerrago), bai eta lehen sektorean ere (4 mila enplegu baino gutxiago, baina EAEk zituen enpleguen laurden bat ia). Dinamikoagoak izan ziren, ordea, gainerako zerbitzu pribatuak, herri-administrazioak eta gizarte-zerbitzuak; ia 24 mila enplegu gehiago sortu zituzten bakoitzak, % 10,1eko eta % 15,5eko hazkundeekin, hurrenez hurren (hau da, Espainian behatutakoa baino 4,2 eta 4,0 p.p. gorago).

Beraz, **enpleguaren bilakaera Euskadin Espainiakoaren desberdina izan da hein batean**: galera txikiagoa gertatu da eraikuntzan, eta antzekoa industrian; bestalde, zerbitzuen enpleguan hazkundera gertatu da. Baina, Euskadiren kasuan, hazkunde hori ez dago turismoarekin lotuta (merkataritzak, ostalaritzak eta garraioak dinamismo txikiagoa erakutsi baitute), sektore publikoarekin eta sektore sozialekin baizik, bai eta gainerako zerbitzu pribatuekin ere.

## Diru-sarrerara txikiagoak izan arren, Euskadik superabit handiarekin itxi zuen 2018a


2018. urtean, Eusko Jaurlaritzaren superabita aurreko urtekoaren erdira baino gutxiagora jaitsi zen, diru-sarrerara publikoen beherakadaren ondorioz; izan ere, 2017an aparteko diru-sarrerak izan zituen, Gobernu zentralarekin hitzartutako Kontzertu Ekonomikoa eta Kupoaren eguneratzearen ondorioz. Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak gastuaren hazkunderaren kontrol zorrotza egin zuen, eta urtearen amaieran % 1,5 u/u soilik handitu zen. Hala, Euskadik eskualdeko BPGren % 0,7ko superabitarekin itxi zuen 2018. Urtea (autonomia-erkidegoen arteko bigarren handiena), eta tarte handiz bete zuen aurrekontuen egonkortasun-helburua, -% 0,4koa (ikusi 2.23. Grafikoa).

2.23 Grafikoa Eusko Jaurlaritzaren finantzaketarako gaitasuna / beharra (eskualdeko BPGren %)



Iturria: BBVA Research Ogasun Ministeritzan oinarrituta

2.24 Grafikoa BPG per capita 2018an, eta bere bilakaera aurreikuspen epean (2020 arte) (€ eta batez besteko % u/u)



Iturria: BBVA Research


## 2018an apaldu ostean, Euskadiko BPGren hazkundeak %2 inguruan eutsiko dio 2020ra arte

Aurreikuspenen arabera, Euskadiko ekonomia % 2,2 handituko da 2019an, eta 2020an, berriz, % 2,0. Horrek 27 mila bat lanpostu sortzeko aukera ekarriko luke 2018 amaieratik 2020 amaiera bitartean, eta langabezia-tasa 1,9 p.p. murriztuko litzateke 2020an % 8,1ra iritsi arte. Aurreikuspenak beteko balira, Euskadiko biztanleko BPGren batez besteko aurrerapena termino konstanteetan (+% 2,0) Espainiako batezbestekoaren gainetik kokatuko litzateke 2017tik 20120ra bitartean (ikusi 2.24 Grafikoa). Biztanleko errentan igoera espero bada ere, eskualdean 2019-2020 biurtekoan biztanleriak Espainian baino hazkunde txikiagoa izango duela aurreikusten da (% 0,1 vs % 0,4 u/u), azken urteetan gertatu den bide beretik. Hala, 2020. urtearen amaieran, Euskadik krisi aurreko BPG maila gaindituko du, bai termino absolutuetan, bai biztanleko (%9,9 eta % 9,3, hurrenez hurren). Hala ere, langabezia-tasa oraindik 2008. urtekoa baino 1,3 p.p. gorago kokatuko dela aurreikusten da, eta enplegua ordukoa baino 5,5 p.p. beherago kokatuko dela (ikusi 2.34 Grafikoa, atal honen amaieran).

**Aurrera begira, hainbat faktorek baldintzatuko dute eskualdearen jokabidea. Eskari globalak gora egiten jarraituko duela espero da**, baina joera ez da izango duela zenbait hilabete uste zena bezain dinamikoa. Horrek, diru-politikaren joera hedakorrarekin batera, **esportazioen hazkundeak bultzatuko du**. Izan ere, orain artean eman den eurogunearen hazkunde txikiagoak eta aurreikusitakoa baino diru-normalizazio geldoagoak **euroaren balio-galera handixeagoa** ekarriko dute. Eurogunetik kanpo gehiago esportatzen duten eskualdeentzat onuragarria litzateke hori, eskari globalagatik eta kanbio-tasaren bidez prezioaren eta lehiakortasunaren aldetik irabaziak handitzeagatik. Euskadiri abantaila txikia damaioke horrek, Espainiako batez bestekoaren gainetik kokatzen baita ondasunak eurogunetik at saltzeari dagokionean, bere BPGren % 17 beste ia (ikusi 2.25 Grafikoa).


Gainera, hurrengo hilabeteetan **petrolioaren prezioak beherantzko joera has dezan espero da**, eta horrek Euskadiko ekonomiak dituen kontrako haizeak konpentsatuko lituzke: biurteko honetan, upeleko batezbesteko prezioa 60 dolar ingurukoa izatea aurreikusten da. Horrek aurrezpen esanguratsua lekarkieke Euskadiko enpresa eta familiei. Prezioaren jaitsiera horrek eskualdeko ekonomien gain izango dituen ondorioak ekoizpenaren *mix* energetikoaren eta ekonomiaren irekitasun-mailaren menpe daude, hein handienera. Euskadiren kasuan, erragaiaren balizko merketze horren eragina jardueraren gainean urtean 0,4 p.p. ingurukoa izatea espero da, Espainiako batezbestekoaren antzekoa (ikusi 2.26 Grafikoa).

2.25 Grafikoa Euroguneaz at egindako ondasun esportazioak 2018ko eskualdeko BPGrekiko (BPGren p.p.)



Iturria: BBVA Research Datacomexen oinarrituta

2.26 Grafikoa Petrolioaren prezioa beherantz berrikustearen eraginak BPGn (p.p.)




Iturria: BBVA Research

**Barne-merkatuari dagokionez, barne-eskariaren hazkundeak utsiko lioke igoerari, baina aurreko urteetako baino txikiagoa izan liteke.** Hori azaltzeko faktoreen artean, lehenik, krisialdian “pilatutako eskariarekin” lotutako bulkadaren ahitzea nabarmendu behar da, bai eta jardueraren sustatzaile izan diren aldeko haizeek indarra galtzea ere; etxeetako azken kontsumoa moteltzea eragiten baitu horrek. Neurri batean, moteltze hori konpentsatuko du soldata publikoak eta pentsioak gora egitearen ondoriozko bultzada-fiskalak. Izan ere, bi neurrian eragin erantsiak errenta eskuragarriaren 0,6 p.p. baino gehiagoko igoera ekarriko luke Euskadin (ikusi 2.27 Grafikoa).

## Euskadik marjina du gastua handitzeko eta 2019ko zerga-betebeharrak betetzeko


Aurrekontua gauzatzeari buruzko lehen datuen arabera, **Eusko Jaurlaritza azken urteotan pilatu ahal izan duen maniobra-tartea baliatzen ariko litzateke bere zerga-politikan joera hedakorragoa hartzeko:** 2018ko aurrekontuak luzatu arren, akordioak erdietsi baiziren<sup>18</sup> maileguak zabaltzeko eta, hala, urte amaierari begira, gastu autonomikoak bultzada neurritsua izango duela aurreikusten da, nagusiki, soldata publikoen igoeraren eta inbertsio publikoaren bultzada handiagoaren ondorioz. Bestalde, diru-sarrerak handitu egingo dira zikloaren eraginez. Horrekin guztiarekin, Euskadik ez luke arazorik izan behar 2019. urtea ixtean egonkortasun-helburua betetzeko, eskualdeko BPGren -% 0,1 alegia. Are gehiago, aurreikusitako diru-sarrerari begiratuta, helburu hori beteta ere, eskualdeko BPGren ia puntu portzentual erdia handitu ahalko litzateke lehen mailako gastua (ikusi 2.28 Grafikoa)<sup>19</sup>.

2.27 Grafikoa Errenta eskuragarriaren igoera eskualdeka, soldata publiko eta pentsioenagatik (p.p.)



Iturria: BBVA Research INEn oinarrituta

2.28 Grafikoa Eusko Jaurlaritza: oinarritzko gastuaren aldaketa (BPGren p.p.)



Oharra: 2019an, egonkortasun-helburua lortzeko behar den aldaketa; (a) datu aurreratua (p) aurre-ikuspena  
Iturria: BBVA Research Ogasun Ministeritzan oinarrituta

18: Ikus [https://elpais.com/ccaa/2019/01/28/paisvasco/1548678899\\_805050.html](https://elpais.com/ccaa/2019/01/28/paisvasco/1548678899_805050.html)

19: AIREFek 2018ko ekitaldi itxierako aurreikuspenen arabera hauxe adierazi du: "litekeena da Euskadiko Autonomia Erkidegoak 2019rako egonkortasun helburua betetzea, eta bere agertokian aurreikusitako aurrekontu-oreka erdiestea ere egingarria da". Ikusi <http://www.airef.es/es/informes-tipo/informes-sobre-los-proyectos-y-lineas-fundamentales-de-presupuestos-de-las-aapp/>

## Kanpoko eta barneko ziurgabetasuna handia da oraindik ere


Euskadik 2019-2020 biurtekoan hazten jarraituko duela aurreikusten den arren, **barne-arriskuak eta, batez ere, kanpo-arriskuak handitu egin dira**. Alde batetik, eremu globaletik iritsitako arriskuak handitu egin dira.

Lehenik, **esporazioen gainera eragin negatiboa gerta liteke merkataritza tentsioak ustekabeen handitzearen ondorioz**. Finantza-merkatuengan eragina oraingoz neurritsua izan den arren, esparru ekonomiko nagusietan hasiberri den hobekuntza apalari eragin diezaioke. Txinaren aldetik autoen gainera neurriak behin-behineko bertan behera gelditzea eta, baletor, Europako aurreikuspenen hobekuntza onuragarriak lirateke Euskadirako. EBtik kanpora zuzendutako esportazioen artean, automobilgintzako esportazioez gain, burdin eta altzairuen esportazioak ere garrantzitsuak dira eskualde honetarako (ikusi 2.29 Grafikoa). Hala ere, sektore teknologikoaren inguruan hartutako azken neurriek adierazten dutenez, handia da merkataritzari jarritako mugen sorgin-gurpil baten gainera ziurgabetasuna. Izan ere, mugok murriztu egingo lukete kanpo-eskariak eskualde ekonomia ezberdinen jarduerari egiten dioten ekarpena, eta kalte nabarmenagoa eragin dezake horrek Euskadin, esportatzeko joera handiagoa duela kontuan hartuta. Gainera, bigarren mailako eraginak ere sor litezke, finantzaketa-kanalaren eta eragileen konfiantzaren bidez.

**Bigarrenik, eurogunean aurreikusitako hazkunde txikiagoak (Italiako atzeraldia barne) eta brexitarekin lotutako ziurgabetasuna handitzeak, euskal ondasunen eta zerbitzuen eskariaren hazkundera murriztuko du merkatuotan**. Azken aldiko gertaerek, ziurgabetasun-aldia luzatzea dakarte, Erresuma Batuak EBtik akordioarekin edo barik alde egingo ote duen; puntu honetan, Euskadik merkatu britainiarrekiko duen lotura Espainiak batez beste duenaren antzekoa da<sup>20</sup>.

**Eskualde mailan, politika ekonomikoaren ziurgabetasuna handia da, eta zalantzarria da berriki onartutako zenbait politikak izango duten eragina**. 2019ko Jaurlaritzaren nahiz estatuko aurrekontu orokorren luzapenak zerga-politikaren marjina mugatzen du. Hala ere, kontuak finkatzen jarraitzeko beharrak hor jarraitzen du, Euskadiko eta Espainiako ekonomien hazkunde txikiagoko testuinguruan, berauen zaurgarritasuna mugatze aldera.

2.29 Grafikoa Merkataritza gerrak kaltetu ditzaken produktuen esportazioa EBz kanpoko herrialdeetara, BPGn duten pisuaren arabera (2018, %)




Goi teknologiatzat hartzen dira farmazia eta informatika alorreko produktuak.  
Iturria: BBVA Research Datacomexen oinarrituta

20: Ikusi, adibidez, *Situación Cantabria 2017* aldizkari 2.29 Grafikoa, hemen eskuragarri: <https://www.bbva.com/public-compuesta/situacion-cantabria-2017/>

**Bestalde, Espainiako Gobernuak orain arte onartu den lanbide arteko gutxieneko soldataren igoera handiena onartu zuen.** Igoera horrek errenta eta epe laburreko gastua bultzatzen ditzake, baina, BBVA Research-en estimazioen arabera, eragin negatiboa izan dezake jardueran eta enpleguan: Espainiako lurralde osoan % 0,9tik % 1,6ra arteko enplegu-murrizketa gerta liteke, enpresek soldata-igoera hori beren gain hartzea edo prezioetan islatzea erabakitzearen arabera. Dena den, errentak lanbide arteko gutxieneko soldataren arabera igotzeak eragin desberdina izango du autonomia-erkidegoetan, horren eragina zenbat soldatapekok izan dezaketen arabera. 2.30 Grafikoan ikus daitezkeenez, Euskadi da igoera horren eragina gutxien hautemango duen autonomia-erkidegoetako bat.


Azkenik, **Espainiako sektore turistikoa moteltze-sintomak erakusten hasia da.** Hala ere, arazo horrek Mediterraneo aldeko eta uharteetako turismoari eragiten dio nagusiki, eta, gainera, autonomia-erkidego honek saturazio turistikoa txikiagoa du. Horren guztiaren ondorioz, Euskadiko eskariak beste lurralde batzuetakoak baino eragin txikiagoa jasango du.

2.30 Grafikoa Soldatapekoak EE.AA.-en arabera: soldaten 1. eta 2. dezetan dauden portzentaia (Espainiarekiko aldea %-tan, 2017)



Iturria: BBVA Research INEn oinarrituta (ETCL, Encuesta Trimestral de Coste Laboral delakoa)

2.31 Grafikoa Langabezia tasa eta betetzeke dauden lanpostuak (3H18, %, 4 hiruherikotako batezbesteko mugikorra, BM4)



Iturria: BBVA Research INEn oinarrituta

## Aurreikuspenen arabera, 27.000 mila lanpostu inguru sortuko dira

**Agertoki hori betetzen bada, Euskadin 27.000 lanpostu berri inguru sortuko lirateke 2018. urtearen eta 2020. urtearen amaierara.** Hala ere, okupazioan hobekuntza ez da nahikoa oraindik krisi aurreko enplegu maila berreskuratzeko: biurtekoaren amaieran, 2008ko maila baino 5,5 p.p. beherago kokatuko da enplegua (ikusi 2.34 Grafikoa). Bestalde, langabezia-tasa murriztu egingo dela aurreikusten da baina, 2020an, 2008an baino 1,3 p.p. gorago kokatuko da, hala ere. Langabezia maila frikzionalera edo krisi aurreko minimora hurbildu ahala, soldatak igotzeko presioak ager daitezke; hein batean, Lan-kostuaren Hiruhilekoko Inkestan (ETCL) behatzen dira jada horrelakoak.


**Euskadin, bete beharreko lanpostuen kopurua biztanleria aktiboarekiko Espainiako batez bestekoa baino handiagoa da,** baina Katalunian, Madrilan eta, nagusiki, Nafarroan behatutakoa baino txikiagoa, langabezia txikiagoa izan arren (ikusi 2.31 Grafikoa). Horrek esan nahi du Euskadin giza kapitalaren murrizketak gertatzen ari direla abildade jakin batzuk eskatzen dituzten zenbait sektoretan, hala nola industrian, zerbitzu aurreratuen atalean edo informazioaren eta komunikazio teknologien (IKT) arloan. Alde horretatik, Lan Kostuaren Hiruhilekoko Inkestaren (ETCL) datuen arabera, suspertze-aldian, lan-kostu osoa gehixeago doitu zen Euskadin Espainian baino, hori bai, industriaren eta zerbitzuen sektoretan gertatutako bilakaera desberdina izanik (ikusi 2.32 Grafikoa). 2013. urtearen amaieratik eta 2016. urtearen erdialdera arte, industria sektoreko lan-kostuak nolabaiteko



mugatze bat erakutsi zuen<sup>21</sup>; azkartu egin zen 2016ko bigarren hiruhilekotik 2017ko amaierara bitartean baina, iaz, neurritsuki hazi zen. Bestalde, zerbitzuen sektoreak nabarmenago doitu zuen lan-kostua susperraldiaren hasierako urteetan, baina hazkundera azkartuz azken hiruhilekoetan, industriarekiko *catching up* bat abiaraziz. Hein batean, jarduera jakin batzuetan beharrezkoak diren profilak lortzeko zailtasunak adieraz ditzake horrek. Langabezia dauden pertsona askok ez badute enplegua sortzen duten enpresek eskatzen duten prestakuntzarik, ordainsariak gora egin dezakete horren ondorioz, eta lanpostu bat dutenen eta ez dutenen arteko arrakala areagotu egingo litzateke.


**Horrez gain, epe luzeko langabeen formakuntza eta lan txertatzea bultzatzen jarraitu beharko luke eskualdeak.** Euskadin bi urtez edo luzaroago langabezia dauden langabetuen portzentaia Espainian baino motelago ari da murrizten, berrindartzealdi honetan. Urtebeteko datu metatuekin, 2019ko lehen hiruhilekoan ia 40 mila lagun leudeke egoera horretan erkidegoan, langabetu guztien % 39,3 hain zuzen, Espainian batez beste baino 5,6 p.p. gehiago (ikus 2.33 Grafikoa). Bi kasuetan, egungo portzentaiek bikoiztu baino gehiago egiten dituzte krisi aurreko epe luzeko langabetuenak. Giza-kapitalaren hobekuntza funtsezkoa da hazkundera inklusiboagoa izan dadin, eta baita aukera berdintasunerako ere.

2.32 Grafikoa Euskadi eta Espainia: Lan-kostu osoa, Lan-Kostuaren Hiruhilekoko Inkestaren (ETCL) arabera (4H13=100, u/u)



Iturria: BBVA Research INEn oinarrituta (ETCL)


2.33 Grafikoa Euskadi eta Espainia: Epe luzeko langabetuen\* portzentaia, langabetu guztiekiko (urtebetean metatutako %)



\* Bi urtez edo luzaroago hala dauden langabeak.  
Iturria: BBVA Research INEn oinarrituta

21: Espainiako Eskualde Kontabilitatearen (CRE) datuek langileen lan-orduen hazkundera eta orduko soldataren murrizketa erakusten dituzte Euskadiko industrian 2013tik 2016ra, Espainiako batezbestekoan ez bezala. Eskuragarri ditugun azkeneko datuetan, 2017koetan, portaera berdina da Euskadiko industrian eta Espainiakoan: soldatek gora egin dute eta soldatapekoen kopuruaren hazkundera txikiagoa gertatu da.

2.34 Grafikoa BPG, landunak, langabezia-tasa, populazioa eta biztanleko BPG. 2018ko maila eta 2019-2020ko aldaketa (krisi aurreko maila, 2008 =100)



Iturria: BBVA Research INEn oinarrituta

2.3 Koadroa BPGren hazkundera AA.EE.-ka

	2015	2016	2017	2018	2019	2020
<b>Andaluzia</b>	3,4	2,9	2,7	2,4	2,3	1,7
<b>Aragoi</b>	1,5	3,2	3,4	2,5	2,3	1,8
<b>Asturias</b>	2,5	1,6	3,8	2,3	1,7	1,6
<b>Balearrak</b>	3,5	4,4	2,4	2,2	2,0	1,6
<b>Kanarias</b>	3,0	3,4	2,7	2,4	2,3	1,8
<b>Kantabria</b>	2,4	2,6	3,4	3,4	2,3	1,7
<b>Gaztela eta Leon</b>	2,5	3,1	1,7	2,5	2,2	2,0
<b>Gaztela-Mantxa</b>	3,8	4,2	2,4	2,8	2,5	2,1
<b>Katalunia</b>	4,2	3,5	3,2	2,3	2,2	2,0
<b>Extremadura</b>	3,0	1,7	2,1	2,0	2,0	1,7
<b>Galizia</b>	4,3	3,1	3,1	2,7	2,2	2,0
<b>Madril</b>	3,9	3,2	3,3	3,7	2,8	2,3
<b>Murtzia</b>	6,6	4,3	3,1	1,5	1,9	1,6
<b>Nafarroa</b>	2,8	3,0	2,8	3,0	2,6	2,1
<b>EAE</b>	<b>3,5</b>	<b>3,0</b>	<b>3,1</b>	<b>2,2</b>	<b>2,2</b>	<b>2,0</b>
<b>Errioxa</b>	3,2	2,6	1,5	1,6	2,0	1,7
<b>Valentzia</b>	3,5	2,8	3,1	2,1	2,0	1,9
<b>Espainia</b>	<b>3,6</b>	<b>3,2</b>	<b>3,0</b>	<b>2,6</b>	<b>2,2</b>	<b>1,9</b>

Iturria: BBVA Research INEn oinarrituta

## 2.4 Koadroa Enpleguaren hazkundera BAI (EPA) inkestaren arabera eta AA.EE.-ka

	<b>2015</b>	<b>2016</b>	<b>2017</b>	<b>2018</b>	<b>2019</b>	<b>2020</b>
<b>Andaluzia</b>	5,1	2,4	4,1	2,8	2,9	1,9
<b>Aragoi</b>	4,2	2,3	2,2	1,4	1,7	1,0
<b>Asturias</b>	-0,1	2,7	2,4	-0,9	0,2	0,5
<b>Balearrak</b>	5,6	4,2	1,2	4,1	3,7	2,6
<b>Kanarias</b>	6,7	3,2	3,4	6,6	1,9	2,5
<b>Kantabria</b>	1,0	3,0	0,9	1,6	0,7	0,9
<b>Gaztela eta Leon</b>	2,0	2,8	0,8	1,0	0,7	1,2
<b>Gaztela-Mantxa</b>	2,3	3,2	4,0	2,9	3,2	1,5
<b>Katalunia</b>	1,5	3,5	2,9	2,7	2,0	1,7
<b>Extremadura</b>	0,8	1,9	0,5	3,7	3,5	1,8
<b>Galizia</b>	1,9	2,3	1,2	2,4	1,5	0,9
<b>Madril</b>	3,6	0,9	2,5	2,9	2,1	1,7
<b>Murtzia</b>	-0,1	6,1	3,4	1,9	2,3	0,9
<b>Nafarroa</b>	0,7	1,2	4,2	1,2	1,7	1,1
<b>EAE</b>	<b>1,4</b>	<b>2,8</b>	<b>0,3</b>	<b>2,2</b>	<b>1,4</b>	<b>1,5</b>
<b>Errioxa</b>	1,7	1,7	1,4	2,7	1,3	1,4
<b>Valentzia</b>	4,0	3,1	3,0	2,7	2,0	2,1
<b>Espainia</b>	<b>3,0</b>	<b>2,7</b>	<b>2,6</b>	<b>2,7</b>	<b>2,1</b>	<b>1,7</b>

Iturria: BBVA Research INEn oinarrituta

## Euskadiko egoera ekonomikoaren azterketa, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren bidez. 2019ko lehen hiruhilekoa<sup>22</sup>

**2019ko lehen hiruhilekoari dagokion Jarduera Ekonomikoari buruzko Inkestaren (EAE-BBVA) emaitzak bat datoz Euskadin aurtengo lehenengo hilabeteetan hazkundeari eustearekin, nahiz eta iazko urtean hazkundera moteldu.** Oro har, aurreko urteko azken hiruhilekoan izandako emaitzen antzekoak dira aurtengoak, baina erantzunen saldo garbiak duela urtebetekoak baino okerragoak dira adierazle guztietan (lehen sektoreko inbertsioan izan ezik).

**Hiruhileko honetako jarduerari buruzko ikuspegian, inkestari erantzun dioten hirutik bik egonkortasuna ikusten dute oraindik, baina, gainerakoan artean, jarduera ekonomikoaren atzerapena ikusten dutenak hazkundera ikusten dutenen bikoitza dira.** Hala, erantzunen saldo garbia negatiboa izan da (-14 p.p.) ondoko ondoko azken bi hiruhilekoetan, eta erregistro okerrera agertzen du 2013ko bigarren hiruhilekotik (ikus R.1.1 Grafikoa). Muturreko erantzunen saldoa duela urtebetekoaren alderantzizkoa da ia.

**Antzeko zerbait gertatu da hurrengo hiruhilekorako espektatibei buruzko emaitzekin: negatiboak izan dira (-8 p.p.) ondoko ondoko azkeneko bi hiruhilekoetan.** 2018ko laugarren hiruhilekoan baino hobeak izan diren arren, duela urtebeteko +% 35etik urrun daude. Balioespen hori koherentea da ekonomiaren hazkunde txikiagoko eta ziurgabetasun eta arrisku handiagoko testuinguru batekin. INEren lehenengo estimazioaren eta Eustat-enaren<sup>23</sup> arabera, joan den urtean ekonomiaren hazkundera moteldu egin zen Euskadin.

**Adierazle partzialen artean, erantzunen saldo garbiak positiboak dira, salmenten eta eskarien diru-zorroren kasuetan izan ezik.** Eta urte artean beheranzko joera adierazten dute aldi berean, eraikuntzako enpleguan izan ezik (ikus R.1.2 Grafikoa).

**Industriaren eta, nagusiki, esportazioen arloetako adierazle partzialek ziurgabetasun-egoera islatzen dute.** Esportazioen saldo garbi nuluak 2012ko bigarren hiruhilekotik izandako saldo garbi positiboen segida hautsi du. Bestalde, industria-ekoizpenaren saldo garbia 4 p.p.-koa izan zen 2019ko lehen hiruhilekoan, 2017-2018 biurtekoan, batez beste, +15 p.p.-ko saldoa izan ondoren. Eta industriako inbertsioaren kasuan, zerora murriztu da.


**Enpleguaren adierazleek positibo eutsi diote,** hiruhilekoen arteko hobekuntza txiki batekin, eta urte arteko konparazioan eraikuntza berriari soilik lotzen zaio hobekuntza hori. Dena dela, inkestari erantzun diotenen bi herenek, gutxienez, egonkortasuna ikusten dute lan-merkatuan, barneko (hauteskundeak) eta kanpoko (*brexita*, Txinaren eta AEBren arteko muga-zergak, etab.) ziurgabetasun-egoera erakusten duen testuinguru batean.

**Laburbilduz, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren emaitzak bat datoz hazkunde-erritmoari euts diezaiokeen ekonomiarekin Euskadin, joan den urtean hazkundera moteldu ondoren,** aurreko urteetako hazkundera bultzatu zuten aldeko haizeak ahitzen ari baitira. Ziurgabetasun-maila handiarekin hasi zuen urtea, bai barneko egoerari eta bai kanpoko egoerari dagokienez, eta turismoaren ikuspegia positiboa den arren, inkestari erantzun diotenen zalantzak agertzen dituzte ondasunen esportazioen inguruan, eta zalantza horiek industriaren sektorean islatzen dira nagusiki. Baina emaitzak neutraltasunetik hurbil daude, eta inkestari erantzun dioten gehienek egonkortasuna aurreikusten dute.

22: 2010eko bigarren hiruhilekotik, BBVA Inkesta hiru hilean behin egiten da, BBVAko eskualdeko bulegoen sareko enplegatuen artean. Inkestari buruzko zehaztasun gehiago nahi izanez gero, ikusi: Situación España, Recuadro 1, Encuesta BBVA de Actividad Económica. Una herramienta de seguimiento temprano del pulso de la economía. Situación España, 2º trimestre de 2014, hemen: <https://www.bbvarsearch.com/public-compuesta/situacion-espana/>


23: Eustatek 2018an Euskadin hazkundera moteldu egingo dela aurreikusten du, baina INEK aurreikusitakoa baino moteltze txikiagoa aurreikusten du, % 2,8 artekoa. Ikusi hemen: [http://www.eustat.eus/elementos/ele0016300/ti\\_EI\\_PIB\\_de\\_la\\_CA\\_de\\_Euskadi\\_ha\\_crecido\\_un\\_28\\_en\\_el\\_ano\\_2018/not0016345\\_c.html](http://www.eustat.eus/elementos/ele0016300/ti_EI_PIB_de_la_CA_de_Euskadi_ha_crecido_un_28_en_el_ano_2018/not0016345_c.html)

R.1.1 Grafikoa Euskadi: jarduera ekonomikoaren bilakaera eta espektatibak. Muturreko erantzunen saldoa (%)



Iturria: BBVA

R.1.2 Grafikoa Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkesta Euskadin. Aukeratutako aldagaiak. Erantzunen saldoak (%)



Iturria: BBVA

## Koadroa R.1 Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkesta Euskadin. Eraitza orokorrak (%)

	2019ko 1. hiruhilekoa				2018ko 4. hiruhilekoa				2018ko 1. hiruhilekoa			
	Handitu	Egonkor	Txikitu	Saldoa*	Handitu	Egonkor	Txikitu	Saldoa*	Handitu	Egonkor	Txikitu	Saldoa*
<b>Jarduera Ekonomikoa</b>	<b>12</b>	<b>63</b>	<b>25</b>	<b>-14</b>	<b>14</b>	<b>63</b>	<b>23</b>	<b>-9</b>	<b>25</b>	<b>66</b>	<b>9</b>	<b>16</b>
<b>Hurrengo hiruhilekorako aurreikuspena</b>	<b>14</b>	<b>65</b>	<b>22</b>	<b>-8</b>	<b>11</b>	<b>63</b>	<b>27</b>	<b>-16</b>	<b>38</b>	<b>59</b>	<b>3</b>	<b>35</b>
Industria-ekoizpena	18	69	14	4	13	75	13	0	23	72	5	18
Eskari-zorria	16	65	20	-4	9	75	16	-7	25	68	6	19
Stock maila	6	88	6	0	7	88	5	2	13	84	4	9
Lehen sektoreko inbertsioa	13	77	10	3	0	100	0	0	6	83	10	-4
Industriako inbertsioa	11	77	11	0	15	75	10	4	17	82	2	15
Zerbitzuetako inbertsioa	22	59	20	2	18	73	9	9	23	71	6	17
Eraikuntza berriak	33	59	8	24	47	49	4	44	49	47	4	45
Industriako enplegua	21	68	11	11	17	74	9	7	22	76	1	21
Zerbitzuetako enplegua	14	76	10	4	14	80	5	9	18	77	5	13
Eraikuntzako enplegua	31	65	4	27	25	74	2	23	24	68	8	16
Prezioak	22	78	0	22	27	68	5	21	24	75	1	23
Salmentak	10	76	14	-4	14	68	18	-4	19	71	10	9
Esportazioak	12	76	12	0	13	84	4	9	18	80	3	15
Turismoa	22	78	0	22	21	68	11	11	43	53	4	39

\* Muturreko erantzunen saldoa.  
Iturria: BBVA Research

### **3. Espainiako errentaren lurralde-dinamika 1955etik 2016ra: lehen hurbilketa**

FEDEA eta Análisi Ekonomikorako Institutua (CSIC). 2019ko otsaila

#### **1. Sarrera**

Artikulu honekin, Espainiako autonomia-erkidegoetako biztanleko BPGren bilakaera eta bilakaera horren faktore erabakigarriak aztertzen dituen sorta bati ekiten zaio, RegData datu-basean (de la Fuente, 2017) erabiltzen diren eskualdeko errentari eta enpleguari buruzko datu-sortak erabiliz. Lehen artikulu honek eskualdeko per capita errentaren bilakaeraren azterketari erreparatuko dio.

Sarreraren ondoren, per capita errentak eta enpleguak oro har Espainian izan duten bilakera deskribatzen da 2. atalean, labor-labor. Ondoren, 3. atalean, per capita errentaren lurralde-banaketaaren dinamika heldu zaio: autonomia-erkidegoek bat egiteko joera erakutsi dute epe horren zatirik handienean, beharrezko erritmoan. Azken krisia hasi zenetik, ordea, joera hori alderantzikatu egin da. Azkenik, 4. atalean, Euskal Autonomia Erkidegoaren jardun erlatiboa aztertu da.


#### **2. Espainiako ekonomiaren bilakaera 1955etik 2016ra: zenbait ezaugarri nabarmen**

Lanaren atal nagusia Espainiako eskualdeek estatuko batezbestekoarekin alderatuta erakusten duten jokamoldearen azterketan ardaztuko denez, komeni da interesatzen zaigun garai honetan Espainiako ekonomikoak izandako bilakaeraren ezaugarri nabarmenenak zehazten hastea, erreferentzia gisa.

1955etik 2016ra, Espainiako biztanleria % 59 hazi zen; biztanleria landunaren artean, enplegua, berriz, % 63 hazi zen batez beste, eta Barne Produktu Gordina, aztergai dugun garaiko batez besteko prezioetan neurtuta, 8,6 aldiz handiagoa izan zen. Horren ondorioz, errenta erreala biztanleko batez beste % 2,76 hazi zen urteko, 5,4 aldiz handiagoa izatera iritsi arte, nahiz eta biztanleria landunaren kopuruak konstante iraun zen biztanleko, % 0,04ko urteko batez besteko hazkunde-tasa xumearekin.

Hortaz, azkar hazi da errenta azken 6 hamarkadetan, eta neurritsuagoa izan da biztanleriaren eta enpleguaren hazkundera. Dena den, Espainiako ekonomiaren jokabidea ez da uniforme izan aintzat hartu dugun garai horretan guztian. 3.1 Grafikoa aztertuta, bost etapa bereiztea izan daiteke egokiena, enpleguaren bilakaerari eta biztanleko errenta erreala hazkunde-erritmoari erreparatuta. Lehenengoa 1955etik 1973ra artekoa litzateke, eta biztanleko BPG erreala azkar haztea du ezaugarri (% 4,92 urteko); okupazioaren hazkunde-tasa positiboa da, nahiko txikia bada ere (% 0,83 urteko).

3.1 Grafikoa Enpleguaren eta produktu errealaren bilakaera biztanleko Espainian. Eskala logaritmikoa, 1955 = log(1) = 0



Oharra: lanean ari diren pertsonen kopuru osoaren eta biztanleko batez besteko BPGren (batez besteko preziotan) arteko logaritmoa, 1955etik 2016ra bitartean. 1955eko serie bakoitzaren balioa 1 zenbakiaren bidez normalizatu da logaritmoak hartu aurretik. Iturria: de la Fuente (2017)


Bigarren etapa 1973tik 1985ra bitarteko urteei dagokie. Krisi garaia da, eta enplegua suntsitzea (-% 1,2 urteko) eta per capita errenta errealaren hazkunde-tasa urteko % 2raino jaitea ditu ezaugarri. Gero, 1985etik aurrera, joera hedakor luze samar bat hasiko da, eta 2007ra arte iraungo du, nahiz eta 1990eko hamarkada hasieran uzkurto egingo den denboraldi labur batez. Aldi horretan, biztanleko errenta hazi egingo da berriro, kontuan hartzeko moduko erritmo batean (% 2,7), nahiz eta ez den iritsiko lehen hedapen garaian erregistratutako hazkundera. Aldiz, enpleguaren sorrera bizkortu egingo da, eta urteko hazkunde-tasak (% 2,8koa) hirukoiztu baino gehiago egingo du aurreko hedapen-etapan izandakoa. 2007tik 2013ra, krisi sakona nabarmenduko da: atzera egingo du nabarmen biztanleko errentak (-% 1,9ko erritmoan urteko), bai eta enpleguak ere (-% 3), eta susperraldi bat etorriko da ondoren; gaur egun, etapa horretan gaude.

### 3. Eskualdeetako ekonomien bilakaera: lehen hurbilketa

Espainiako geografia ekonomikoa asko aldatu da aurreko mendeko 50eko urteetatik. Biztanleriak eta produktuak lurraldeetan duen banaketari erreparatuta, garai honen ezaugarrietako bat hauxe da: pixkana, murriztu egin dira biztanleko errentan eskualdeen artean zeuden aldeak, eta zenbait lurraldek gero eta biztanleria eta jarduera ekonomiko gehiago biltzen dute.



3.2. Grafikoa Per capita errentaren eta biztanleriaren dentsitatearen arteko desbiderapen tipikoa (1955 = 100)



Oharra: eskualde bakoitzeko per capita errenta (biztanleko BPG, prezio arruntetan) eta biztanleriaren dentsitatea (biztanle km<sup>2</sup>-ko) Espainiako batezbestekoarekiko termino erlatibotatik adierazi dira, aldi bakoitzean 100era normalizatuta. Horrela osatutako aldagaien desbiderapen estandarrik egin duen ibilbidea erakusten du grafikoa, laginaren lehen urtean bi dispersio-adierazle baliokide 100era normalizatu ondoren. Ceuta eta Melillari dagokien agregatua ohar bakar modura txertatu da per capita errentaren dispersioa kalkulatu ahal izateko; baina, biztanleriaren dentsitatearen kasuan, kanpoan utzi da, aldagai horrek oso balio atipikoa duelako eta kalkuluetan distortsioa eragiten duelako.  
Iturria: de la Fuente (2017)


3.2 Grafikoak bi prozesu horien indarra erakusten du, bai eta 1980tik aurrera izan zuten motelaldia ere. 1955etik 1980ra bitarteko hogeita bost urteetan, eskualdeko per capita errentaren desbiderapen tipikoa erdira murriztu zen, eta biztanleriaren dentsitate erlatiboaren dispersioa % 80tik gora hazi zen. Hala ere, 1980tik 2016ra, errentan ikusten den desberdintasunaren adierazlea egonkortu egin da, eta biztanleriaren desbiderapen tipikoa handitzen jarraitu du, askoz erritmo leunagoan bada ere.

**a. Makro-eskualdeen bilakaera**

Atal honetan, errentak eta biztanleriak eskualdeetan izan duten bilakaera. 3.2 Grafikoaren azpian dagoena, zehaztasun handiagoz aztertuko dugu. Datuen lehen hurbilketa honetan eztabaida hobeto antolatu ahal izateko, 17 autonomia-erkidegoak bost makro-eskualde handitan multzokatu ditut, zenbait irizpide ekonomikoren eta geografikoren arabera. Industrian tradizio eta pisu handieneko hiru autonomia-erkidegoak (Katalunia, Euskadi eta Madril) eskualde ekonomiko bakar batean bateratu dira, eta horixe egin da ekonomiak turismoaren mende dituzten uharteetako bi eskualdeekin ere. Gainerako eskualdeak irizpide geografikoen arabera multzokatu dira, eta Hegoaldea (Andaluzia, Extremadura, Gaztela-Mantxa, Murtzia eta Ceuta eta Melilla), Ipar-mendebaldea (Galizia, Asturias, Kantabria eta Gaztela eta Leon) eta Ebro bailara bereizi dira, Errioxa, Aragoi eta Nafarroak osatua, eta Valentziako Erkidegoa erantsi zaio.


3.3 Grafikoak makro-eskualde horietako bakoitzak Espainiako biztanlerian duen pisuaren bilakaera islatzen du. Eskualdeen profilak askotarikoak dira. 1950etik 1980ra, industriarekin lotutako autonomia-erkidego handien pisua % 60 hazi da ia, eta, aldiz, hegoaldeko eskualdeak hasieran zuen pisuaren % 20 galdu du.

3.3 Grafikoa Bost makro-eskualde handiek Espainiako biztanlerian duten pisuaren bilakaera



Oharra: eskualde bakoitzak Espainiako biztanleria osoan duen pisua (Ceuta eta Melilla barnean hartuta).  
Iturria: de la Fuente (2017)

3.4 Grafikoa Per capita errenta erlatiboa (Espainia = 100)



Oharra: BPG prezio arruntetan, biztanleriaz zatiitua eta estatuko batezbestekoaren bidez normalizatua, Ceuta eta Melilla barne hartuta (=100).  
Iturria: de la Fuente (2017)


1980tik aurrera, hala ere, bi eskualde horien pisuak nahiko egonkor jarraituko du. Bestalde, Ipar-mendebaldeak indarra galdu du denboraldi horretan guztian, nahiko modu uniformearekin, eta uharteek erkidegoak indartu egin dira. Denboraldia bere osotasunean hartuta, eskualde handi horietako lehenengoak hasierako pisuaren % 40 galduko du, eta bigarrenak, berriz, % 60 inguru irabaziko du. Azkenik, Ebro bailara eta Levante batzen dituen eskualdea da ia azken hirurogeita hamar urteetan posizio konstante samar bati eutsi dion bakarra, nahiz eta egonkortasun horrek argi eta garbi bereizten diren dinamikak ezkutatzeko dituen eskualde horretako autonomia-erkidegoen artean; hala, Ebro bailarak pisua galduko du Valentziako Erkidegoaren aurrean.

3.4 Grafikoa makro-eskualde handietan biztanleko errenta erlatiboak denboran zehar egin duen ibilbidea adierazten du. 1980ra arte, batezbestekorantz datoz bizkor goialdetik eskualde industrialak, baina biztanleko errenta egonkortu egiten da hortik aurrerantz, eta goranzko joera leun bat ere erakusten dute. Hegoaldeak ere antzeko eredu bat erakusten du: biztanleko errentak gorantz egiten du batezbestekora hurbilduz, 1975 edo 1980 arte, eta, gero, erreferentzia horretatik 25 bat puntu beheraxeago egonkortzen da. Aldiz, ipar-mendebaldeak goranzko joera batera egiten du denboraldi oso horretan, gorabeheratxo batzuekin bada ere, eta Ebro eta Levanteko eskualdeak beheranzko joeratzu bat erakusten du, gorabeherekin kasu horretan ere. Azkenik uharteek autonomia-erkidegoetan, goranzko joera nabarmentzen da mende-aldaketara arte, eta estatuko batezbestekoa gainditzen dute epe horretan; baina atzerantz egiten dute gero berriro nahiko bizkor, azken aldera arte.

## b. Per capita errentaren banaketa eskualdeen arabera

3.5 Grafikoa biztanleko errenta erlatiboa 1955etik 2016ra eskualdeen arabera nola banatzen den erakusten du. Epe horren barnean, lehen urtean, eskualde aberatsena Euskadi zen, eta haren atzetik zetozen Madril, Katalunia eta Nafarroa; pobreenak, berriz, Extremadura, Galizia, Gaztela-Mantxa eta Kanariak ziren. Handik hirurogei urtera, errentaren ranking horren muturretan dauden gehienak berberak dira, baina badaude berrikuntza batzuk, eta ordena ere aldatzen da kasu batzuetan. Madrilek hartu du Euskadiren tokia lehen posizioan, eta Andaluziak eta Murziak hartu dute Galiziaren eta Kanariaren lekua azken postuetako eskualdeen multzoan. Bestalde, banaketaren bi muturren arteko tartea nabarmen murriztu da: eskualde aberatsenaren eta pobreenaren arteko aldea erdira jaitsi da: 1955ean, 130 puntutik gorako aldea zuten, eta 2016an, alde hori 68koa da “soilik” .

3.5 Grafikoa Per capita errenta erlatiboa (Espainia = 100)



Gakoa: MAD = Madril; EAE= Euskadi; NAF = Nafarroa; KAT = Katalunia; BAL = Balearrak; ERR = Errioxa; ARA = Aragoi; KNT = Kantabria; GLE = Gaztela eta Leon; VAL = Valentzia; KAN = Kanariak; AST = Asturias; MUR = Murtzia; GAL = Galizia; GMA = Gaztela-Mantxa; AND = Andaluzia; EXT = Extremadura; Ze-Mel= Zeuta eta Melilla.  
Iturria: de la Fuente (2017)

Horrez gain, argi ikusten da grafikoan hasieran pobreenak ziren autonomia-erkidegoek hobetu egin dutela beren egoera erlatiboa, eta, oro har, atzerantz egin dutela aberatsenek; beraz, bi taldeak batezbestekora gerturatu dira. *Eskualdeen arteko konbergentzia-prozesu* batez hitz egin dezakegu, edota errentaren arloko desberdintasunak murrizteaz, nahiago bada.

Prozesu horren intentsitatea zenbatesteko modu egokia izan daiteke konbergentzia-erregresioa kalkulatzeko: azaldu beharreko aldagaia epe jakin batean ( $\Delta r_{pci}$ ) biztanleko errentaren hazkunde-tasa da, eta aldagai azaltzailea, berriz, aldagai horren maila da, laginaren epearen hasieran ( $r_{pci_0}$ )<sup>24</sup>. Estatuko batezbestekoari lotuta adierazitako aldagai horiekin lan eginez, honako ekuaziok hau kalkulatu da:

$$(1) \Delta r_{pci} = a - \beta r_{pci_0}$$


non estatuko batezbestekoarekiko diferentzia logaritmikoetan neurtzeko den  $r_{pc}$ , eta interesa duen epe horretako  $r_{pc}$ -ren batez besteko urteko hazkundera den  $\Delta r_{pc}$ .

Ekuazio horretako malda-koefizienteak ( $\beta$ ) oso neurri erabilgarria emango digu epe horretan eskualdeen arteko aldeak murrizten doazen abiaduraz, eta, gainera, ikusiko dugunez, nahiko modu xumean deskonposa daiteke, eskualdeen arteko konbergentziaren berehalako iturriak zenbatzeko. Eskualdearen errenta eta hari dagokion hazkunde-tasa estatuaren batezbestekoarekiko aldearen bidez adierazten direnez, erregresio-konstantea (1) zero izango da gutxi gorabehera. Hortaz, *konbergentzia-koefizientea* ( $\beta \cong -\Delta r_{pci}/r_{pci_0}$ ) honela interpreta daiteke: “eskualde tipiko” baten errenta erlatiboaren batez besteko urteko hazkundera, lagin-epearen hasieran estatuko batezbestekoarekiko errentaren diferentzialaren zatiki gisa adierazita. Beraz,  $\beta$ -ren balioa 0,10 bada, esate baterako, esan nahi du estatuaren batezbestekoarekiko errentaren diferentziala, batez beste, % 10 murrizten dela urtero.

24: Ikuspegi horren honetan du jatorria: Barro y Sala i Martin (1990).

3.6 Grafikoak ekuazioak (1) deskribatutako konbergentzia-erregresioaren emaitzak erakusten ditu, bai eta oro har 1955etik 2016rako epean errentaz eta hazkunde erlatiboaz azpian dituen datuak ere. Erregresio-zuzen doituaren malda negatiboak adierazten du, batez beste, hazkunde-erritmoa handiagoa izan dela hasiera batean pobreenak ziren eskualdeetan. Horren ondorioz, aintzat hartutako epe horretan Espainiako eskualdeen artean *beta konbergentzia* izan dela esan dezakegu. Dena den, emaitzek argi erakusten dute eskualdeen errentak berdintzeko prozesua oso motela izan dela garai horretan. Konbergentzia-koefizientearen balioak (0,0082) adierazten du Espainiako “eskualde tipiko” batean errentaren diferentzialaren % 0,82 soilik kentzen dela biztanleko, estatuko batezbestekoarekin alderatuta. Erritmo horretan, laurogei bat urte beharko lirateke eskualde bakoitzaren eta Espainiako batezbestekoaren arteko hasierako arrakala erdira murrizteko.


3.6 Grafikoa Espainiako estatuen arteko beta konbergentzia biztanleko errenta erlatiboan, 1955-2016 aldian



$$\Delta r_{pc_i} = -0,0004 - 0,0082 r_{pc_{i0}} \quad t = 7,94 \quad R^2 = 0,798$$

Oharra: per capita errenta erlatiboa estatuko batezbestekoarekiko diferentzia logaritmikoetan neurtzen da.  
Iturria: de la Fuente (2017)

3.7 Grafikoa Per capita errentaren beta konbergentzia-tasa, azpi-etapetan




Iturria: de la Fuente (2017)

Aztergai hartutako aldi horren barnean beste batzuk bereizten baditugu eta ariketa hori errepikatzen badugu, per capita errentan konbergentzia-tasa murrizteko joera nabarmentzen dela ikusiko dugu. Azpi-etapa horietarako kalkulaturako konbergentzia-tasak erakusten ditu 3.7 Grafikoa, 1955. urtea hartuta abiapuntutzat. 1961etik 1973ra eskualdeen arteko konbergentzia-prozesua nahiko sendoa izan zela ikusten da hor, eta moteldu egin dela hortik aurrera, edota 1980ko hamarkadaren erdialdetik aurrera urteko % 1etik beherako konbergentzia-tasetara iritsi dela; azken hamarkadan negatiboak ere izan dira.

## 4. Euskadiren kasua

3.8 Grafikoa, Euskadiko per capita errenta erlatiboaren bilakaera laburtzen du, eta Espainiako multzo osoko maximoarekin eta minimoarekin konparatzen du, bai eta autonomia-erkidegoa biltzen duen makro-eskualdekoarekin ere. 1950eko hamarkadaren erdialdera, Espainiako altuenetakoa zen Euskadiko per capita errenta, eta Espainiako batezbestekoaren oso gainetik kokatzen zen, laurogei puntu gorago. Hurrengo 25 urteetan, ia hirurogeita hamar puntu galdu zituen autonomia-erkidegoak, eta, ondorenean, errenta erlatiboa egonkortu egin zen lehenengo, eta zertxobait gora egin zuen gero. Hiru eskualde industrial handien barnean, lehen tokian kokatu zen EAE per capita errentan, 1977ra arte; hirugarren tokian kokatu zen 1980an, eta Kataluniaren aurretik kokatu zen berriro 2003an; epearen amaiera aldera, Madrili gerturatu zitzaion.


3.8 Grafikoa Euskadiko per capita errenta erlatiboaren bilakaera



Iturria: de la Fuente (2017)

Autonomia-erkidegoaren jokabidea balioesteko beste modu bat 3.6 Grafikoa adierazitako beta konbergentzia-diagramatik abiatzea da. Grafiko horri esker, Espainiako eskualde bakoitzaren hasierako posizioa ikus daiteke, bai eta aztergai hartutako garai horretako hazkunde erlatiboa ere. Autonomia-erkidego bakoitzaren jarduna eskualde pobreenen alde jokatzeko duen konbergentzia-efektua kenduta aztertze aukera ematen du, gainera, diagramak. Teoria ekonomikoak hainbat mekanismo identifikatzen ditu (hala nola hedapen teknologikoa eta errendimendu beherakorra), hasiera batean pobreenak diren eskualdeek ia automatikoki batezbestekotik oso gora nola haztera jotzen duten azaltzeko; horrela, aberatsenetatik bereizten dituen tartea murriztu egiten da. Eskualdeen hazkunde-tasa horretatik konbergentzia-efektu hori “kentzeko” eta, horrela, elkarrekin errazago konparatzeko prozedura bat honetan datza: konbergentzia-ekuazioaren hondarrarekin lan egiten da, hau da, balioetsitako erregresio-zuzenarekiko distantzia bertikalarekin, ardatz horizontalarekiko distantziari dagokion hazkunde-tasa gordinarekin aritu beharrean. Adierazle horrek erregresio-zuzenak deskribatutako jokabidearen batez besteko ereduarekiko eskualde batek zeinen jardura egokia edo desegokia izan duen laburbiltzen du.

3.9 Grafikoa. Euskadiko per capita errenta erlatiboaren batez besteko hazkunde-tasa, 1955-2016



Oharra: zuzendutako hazkunde-tasa 3.6 Grafikoan ageri den konbergentzia-ekuazioaren hondarra da. Iturria: de la Fuente (2017)

Ikuspegi horretatik, Euskadiren jarduera espero zitekeena da, hasierako errenta maila hartuta kontuan. 3.9 Grafikoak Euskal Autonomia Erkidegoari 1955etik 2016ra dagokion hazkunde-tasa gordina erakusten du, bai eta konbergentzia-efektua kenduta ateratzen den balio zuzendua ere, herrialdean dagozkion maximoekin eta minimoekin eta EAE barnean hartzen duen eremu industrialen makro-eskualdekoekin alderatuta. Per capita errenta erlatiboaren hazkunde gordinari dagokionez, banaketaren azken postuan kokatzen da Euskal Autonomia Erkidegoa, urteko -% 0,56ko hazkunde-tasarekin. Dena den, eskualdeak termino erlatibotan atzera egitea hasierako errenta maila altuak azalduko luke, eta konbergentzia-efektuak kenduta, errenta erlatiboaren hazkunde-tasaren balio zuzenduta % 0,00 ingurukoa litzateke; hau da, estatuko batez bestekoa baino zertxobait beherago legoke, eta hiru erkidego industrial handien artean bigarren lekuan.

## Erreferentziak

de la Fuente, A. (2017). "Series largas de algunos agregados económicos y demográficos regionales: Actualización de *RegData* hasta 2016. (*RegData* y *RegData Dem* versión 5.0-2016)." FEDEA, Estudios sobre Economía Española no. 2017-26, Madrid.

<http://www.fedea.net/datos-economia-regional-y-urbana/>

Barro, R. eta X. Sala i Martin (1990). "Economic Growth and Convergence Across the United States." NBER Working Paper no. 3419.

## 4. Taulak

### 4.1 koadroa Euskadiko ekonomiaren koiantura adierazle nagusiak (%)

	2018		Batazbesteko hazkundera urte haseratik (u/u)		Azken datua (h/h, ueez)		
	Euskadi	Espainia	Euskadi	Espainia	Euskadi	Espainia	Azken hilabetea
Txikizkako salmentak	1,3%	0,8%	1,1%	1,2%	0,0%	0,1%	mar-19
Matrikulazioak	4,6%	6,0%	-2,6%	-3,5%	-1,4%	5,1%	api-19
ZSJI (IASS)	7,4%	6,1%	5,1%	5,1%	0,2%	-0,2%	mar-19
Bidaiari egoiliarak (1)	1,8%	1,3%	2,9%	2,4%	-5,8%	-2,8%	api-19
Egoiliarren ostatu-gauak (1)	2,2%	0,5%	3,2%	2,0%	-8,1%	-5,5%	api-19
IPI	0,4%	0,7%	2,2%	0,7%	-1,6%	0,1%	mar-19
Etxebizitza bisatuak	20,3%	24,7%	61,8%	23,2%	28,3%	-5,5%	ots-19
Etxebizitza salerosketak	9,5%	10,2%	7,4%	2,4%	9,1%	2,5%	ots-19
Esportazio Errealak (2)	1,4%	0,2%	-5,0%	-1,7%	-5,2%	-1,0%	mar-19
Inportazioak	1,1%	0,9%	2,2%	1,4%	-12,6%	-2,0%	mar-19
Bidaiari Atzerritarak (3)	6,1%	1,5%	6,0%	4,6%	-2,2%	-0,3%	api-19
Atzerritarren Ostatu-gauak (3)	6,6%	-0,5%	4,9%	1,6%	2,4%	-0,1%	api-19
Afiliazioa SSn	2,1%	3,1%	1,8%	2,9%	0,2%	0,2%	api-19
Langabezia Erregistratua	-7,4%	-6,5%	-6,6%	-5,2%	-0,9%	-0,4%	api-19

(1) Espainiako Egoiliarak; (2) Ondasun esportazioak; (3) Espainiako egoiliarak ez direnak.  
Iturria: BBVA Research eta Espainiako ministeritzetan (SOIM, EOM eta ITMM) oinarrituta

### 4.2 koadroa Aurreikuspen makroekonomikoak: Barne Produktu Gordina (% , urteko batez bestekoa)

	2016	2017	2018	2019	2020
Estatu Batuak	1,6	2,2	2,9	2,5	2,0
EDB	1,9	2,5	1,8	1,0	1,3
Alemania	2,2	2,5	1,5	0,8	1,4
Frantzia	1,1	2,3	1,6	1,2	1,5
Italia	1,2	1,7	0,8	-0,2	0,5
Espainia	3,2	3,0	2,6	2,2	1,9
Erresuma Batua	1,8	1,8	1,4	1,3	1,6
Latinoamerika *	-0,2	1,8	1,5	1,7	2,3
Mexiko	2,7	2,3	2,0	1,4	2,2
Brasil	-3,3	1,1	1,1	1,8	1,8
Eagles **	5,2	5,4	5,2	4,9	5,0
Turkia	3,2	7,4	2,6	1,0	2,5
Asia-Ozeano Barea	5,6	5,6	5,6	5,3	5,2
Japonia	0,6	1,9	0,8	0,7	0,5
Txina	6,7	6,8	6,6	6,0	5,8
Asia (Txina gabe)	4,6	4,6	4,7	4,6	4,6
Mundua	3,3	3,7	3,6	3,4	3,4

(a) Aurreikuspena.

\* Argentina, Brasil, Txile, Kolonbia, Mexiko, Peru eta Venezuela.

\*\* Saudi Arabia, Bangladesh, Brasil, Txina, Filipinak, India, Indonesia, Irak, Mexiko, Nigeria, Pakistan, Errusia, Thailandia eta Turkia.

Aurreikuspenen itxiera-data: 2019ko apirilak 5.

Iturria: BBVA Research eta NDF



**4.3 koadroa Inflazioa (% urteko batez bestekoa)**

	2016	2017	2018	2019	2020
Estatu Batuak	1,3	2,1	2,4	1,7	2,1
EDB	0,2	1,5	1,8	1,2	1,5
Alemania	0,4	1,7	1,9	1,4	1,6
Frantzia	0,3	1,2	2,1	1,3	1,5
Italia	-0,1	1,3	1,2	0,9	1,2
Espainia	-0,2	2,0	1,7	1,1	1,4
Erresuma Batua	0,7	2,7	2,5	1,8	1,8
Latinoamerika *	9,8	6,7	7,1	7,9	6,4
Mexiko	2,8	6,0	4,9	4,0	3,7
Brasil	8,8	3,5	3,7	3,8	4,8
Eagles **	4,4	4,0	4,7	4,8	4,3
Turkia	7,8	11,1	16,3	16,3	9,4
Asia-Ozeano Barea	2,3	2,0	2,3	2,3	2,6
Japonia	-0,1	0,5	1,0	0,9	1,3
Txina	2,1	1,5	1,9	2,0	2,2
Asia (Txina gabe)	2,5	2,4	2,7	2,6	2,9
Mundua	3,2	3,3	3,8	3,7	3,5

\* Argentina, Brasil, Txile, Kolonbia, Mexico, Peru eta Venezuela.

\*\* Saudi Arabia, Bangladesh, Brasil, Txina, Filipinak, India, Indonesia, Irak, Mexiko, Nigeria, Pakistan, Errusia, Thailandia eta Turkia.

Aurreikuspenen itxiera-data: 2019ko apirilak 5.

Iturria: BBVA Research

**4.4 koadroa Zor publikoaren 10 urterako interes tasa (% urteko batez bestekoa)**

	2016	2017	2018	2019	2020
Estatu Batuak	1,84	2,33	2,91	2,78	3,00
Alemania	0,13	0,37	0,46	0,15	0,58

Aurreikuspenen itxiera-data: 2019ko apirilak 5.

Iturria: BBVA Research

**4.5 koadroa Aurreikuspen makroekonomikoak: kanbio tasak (Urteko batez bestekoa)**

	2016	2017	2018	2019	2020
EUR-USD	0,90	0,89	0,85	0,88	0,84
USD-EUR	1,11	1,13	1,18	1,14	1,19
USD-GBP	1,35	1,29	1,33	1,37	1,46
JPY-USD	108,82	112,20	110,47	111,49	110,67
CNY-USD	6,64	6,76	6,61	6,72	6,71

Aurreikuspenen itxiera-data: 2019ko apirilak 5.

Iturria: BBVA Research

**4.6 koadroa Aurreikuspen makroekonomikoak: diru-politikaren interes-tasak (Epeldi amaiera, %)**

	2016	2017	2018	2019	2020
Estatu Batuak	0,75	1,50	2,50	2,75	2,75
EDB	0,00	0,00	0,00	0,00	0,25
Txina	4,35	4,35	4,35	3,85	3,85

Aurreikuspenen itxiera-data: 2019ko apirilak 5.

Iturria: BBVA Research

## 4.6 koadroa Espainia: aurreikuspen makroekonomikoak (Urte arteko bariazio-tasak %-tan, kontraktorik adierazi ezean)

	2016	2017	2018	2019	2020
<b>Jarduera</b>					
BPG erreala	3,2	3,0	2,6	2,2	1,9
Kontsumo pribatua	2,9	2,5	2,3	2,0	1,7
Kontsumo publikoa	1,0	1,9	2,1	2,2	1,6
Kapital eraketa gordina	2,9	4,8	5,3	4,1	3,9
Ekipoak eta makineria	5,2	6,0	5,4	3,0	3,7
Eraikuntza	1,1	4,6	6,2	4,8	3,7
Etxebizitza	7,0	9,0	6,9	4,6	4,3
Barne-eskaria (hazkudeari egin ekarpena)	2,4	2,9	2,9	2,4	2,1
Esportazioak	5,2	5,2	2,3	2,8	3,8
Inportazioak	2,9	5,6	3,5	3,8	4,5
Kanpo-eskaria (hazkudeari egin ekarpena)	0,8	0,1	-0,3	-0,3	-0,2
BPG nominala	3,5	4,2	3,6	3,8	3,5
(Mila milioi euro)	1118,7	1166,3	1208,2	1254,8	1299,1
<b>Lan merkatua</b>					
Enplegua, BAI (EPA)	2,7	2,6	2,7	2,0	1,7
Langabezia tasa (biztanleria aktiboaren %)	19,6	17,2	15,3	13,9	12,8
CNTR enplegua (lanaldi osoaren baliokidea)	3,1	2,8	2,5	2,0	1,6
Lan-faktorearen ageriko produktibitatea	0,1	0,1	0,1	0,2	0,3
<b>Prezio eta kostuak</b>					
KPI (urteko batez bestekoa)	-0,2	2,0	1,7	1,1	1,4
KPI (aldi bakoitzaren amaieran)	1,6	1,1	1,7	1,2	1,5
BPGren deflatoarea	0,3	1,3	1,0	1,6	1,6
Soldatapekoen ordainsaria	-0,5	0,3	0,8	2,1	2,3
Unitateko lan-kostua	-0,6	0,2	0,8	1,9	2,0
<b>Kanpo-sektorea</b>					
Kontu korronte balantza (BPGren %)	2,3	1,8	1,0	0,9	0,8
<b>Sektore publikoa (*)</b>					
Zorra (BPGren %)	99,0	98,1	97,2	95,9	94,5
Herri Administrazioen saldoa (BPGren saldoa) (*)	-4,3	-3,0	-2,6	-2,2	-1,9
<b>Etxeak</b>					
Errenta nominal eskuragarria	1,8	1,6	3,7	4,7	5,2
Aurrezki tasa (errenta nominalaren %)	8,0	5,7	5,4	6,6	8,0

Urte arteko bariazio-tasak %-tan, kontraktorik adierazi ezean.

(a) Aurreikuspena.

Aurreikuspenen itxiera-data: 2019ko apirilak 5.

(\*) Espainiako finantza erakundeei emaniko laguntzak kenduta.

Iturria: BBVA Research

## 5. Glosarioa

### Siglak

- AAEE: Autonomia Erkidegoak
- BAI: Biztanleria Aktiboaren Inkesta
- BBVA – GAIN: BBVAren jarduera globalaren indizea
- BBVA: Banco Bilbao Vizcaya Argentaria
- BPG: Barne Produktu Gordina
- CEOE: Enpresaburuen Elkarteen Espainiako Konfederazioa
- CEPYME: Enpresa Txiki eta Ertainen Espainiako Konfederazioa
- CNTR: hiru hileroko kontabilitate nazionala
- CRE: Espainiako Eskualde Kontabilitatea
- EAE – BBVA:Jarduera Ekonomikoari buruz BBVA inkesta
- EAGLEs: garatzeko bidean dauden eta hazkunderako liderrak diren ekonomiak (Emerging and Growth-Leading Economies)
- EB: Europar Batasuna
- EBZ: Europako Banku Zentrala
- EDB: Ekonomia eta Diru Batasuna
- ENKA: enplegu eta negoziazio kolektiborako akordioa
- ETE: enpresa txiki eta ertainak
- ETCL: lan kostuen hiruhileko inkesta
- Euribor: euroaren eremuko diru-merkatuko banku arteko erreferentzia-tasa (Euro interbank Offered Rate)
- FED: Erreserba Federala (Federal Reserve System)
- GAKN: Gastua Azken Kontsumo Nazionalan
- GK: Gobernu Kontseilua
- HEH: Hiri Eremu Handia
- HHAA: Herri Administrazioak
- INE: Estatistikako Institutu Nazionala
- KPI: Kontsumo Prezioen Indizea
- I.o.e.: lanaldi osoari dagokion enplegua
- LATAM: Latinoamerikari dagokion agregatua; honen barnean sartzen dira Argentina, Brasil, Txile, Kolonbia, Mexiko, Peru eta Venezuela
- MEYSS: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa
- MICA-BBVA: momentuko jarduera-adierazleen BBVA eredia
- MINHAFP: Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioa
- SEB: beste sektore egoiliar batzuk
- UEEZ: urtarokotasun eta egutegi-eraginak zuzenduta
- UTB: Urteko Tasa Baliokidea

### Laburdurak

- h/h: hiruhileko arteko aldaketa
- KT: konfiantza tarte
- mM: mila milioi
- mp: merktu preziotan
- op: oinarrizko puntuak
- p.p.: puntu portzentualak
- u/u: urtetik urterako aldaketa

## LEGE-OHARRA

BBVA Research-eko sailak egindako dokumentu honek dibulgazio-izaera du, eta egindako datari dagozkion datuak, iritziak eta estimazioak ditu, bertan landutakoak edo fidagarri irizten diegun iturrietatik datozenak edota berorietan oinarrituta egin direnak; hala ere, BBVAk ez ditu bere kabuz egiaztatu beroriek. Hortaz, berorien zehaztasunari, osotasunari edo zuzentasunari buruzko bermerik ez du ematen BBVAk, ez berariaz eta ez modu inplizituan.

Dokumentu honetan izan daitezkeen estimazioak oro har onartuta dauden metodologiak erabiliz landu dira, eta halakotzat hartu behar dira, hau da, aurreikuspen edo proiektioztat. Aldagai ekonomikoen bilakaera historikoak (positiboa edo negatiboa) ez du bermatzen etorkizunean bilakaera baliokidea izango dutenik.

Dokumentu honen edukiak aldaketak izan ditzake, aurretiazko abisurik gabe, adibidez, testuinguru ekonomikoaren arabera edota merkatuaren gorabeheren arabera. BBVAk ez du inolako konpromisorik hartzen ez dokumentua eguneratzeko eta ez aldaketa horien berri emateko ere.

BBVAk ez du beregain inolako erantzukizunik dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzearen ondorioz zuzenean edo zeharka gerta daitezkeen inolako galeraren aurrean.

Ez dokumentu hau eta ez jasotzen duen edukia ere ez dira inolaz ere eskaintza, gomendio edo erosketa-eskaera, aktibo edo tresna finantzarioak erosteko, inbertsioak desegiteko edo interesak lortzeko, eta ezin dute izan inolako kontratu, konpromiso edo erabakiren oinarri.

Dokumentu honek gara ditzakeen aldagai ekonomikoekin lotuta egon daitezkeen aktibo finantzarioetan egin daitezkeen inbertsioei dagokienez, irakurleek argi eta garbi izan behar dute ezin dutela dokumentu hau beren inbertsioei buruzko erabakiak hartzeko oinarritzat hartu, eta inbertsio-produktuen eskaintzak egin diezazkieketen pertsonak edo erakundeak legez behartuta daude horrelako erabaki bat hartzeko beharrezkoa duten informazio guztia ematera.

Honako dokumentu honen edukia jabetza intelektualari buruzko legediak babesten du. Berariaz debekatuta dago berau erreproduzitzea, aldatzea, banatzea, publikoki zabaltzea, eskuragarri jartzea, zatiak ateratzea, berriro erabiltzea edo bidaltzea edo beste edozein helburutarako erabiltzea, edozein bitarteko edo prozedura medio, legez baimendutako kasuetan salbu eta BBVAk berariaz emandako baimena dutenean salbu.

## Txosten hau prestatu du:

### Ekonomialari Burua

Miguel Cardoso

miguel.cardoso@bbva.com

### Joseba Barandiaran

joseba.barandia@bbva.com

+34 94 487 67 39

### Giancarlo Carta

giancarlo.cart@bbva.com

+34 673 69 41 73

### Luis Díez

luismiguel.diez@bbva.com

+34 697 70 38 67

### Víctor Echevarría

victor.echevarria@bbva.com

### Juan Ramón García

juanramon.gl@bbva.com

+34 91 374 33 39

### Félix Lores

felix.lores@bbva.com

+34 91 374 01 82

### Dmitry Petrov

dmitry.petrov.becas@bbva.com

+34 91 537 54 82

### Marta Pérez

marta.perez.beamonte.becas@bbva.com

+34 91 374 55 88

### Virginia Pou

virginia.pou@bbva.com

+34 91 537 77 23

### Pep Ruiz

ruiz.aguirre@bbva.com

+34 91 537 55 67

### Angie Suárez

angie.suarez@bbva.com

+34 91 374 86 03

### Camilo Andrés Ulloa

camiloandres.ulloa@bbva.com

+34 91 537 84 73

### Sirenia Vázquez

sirenia.vazquez@bbva.com

+34 607 37 07 81

### INTERESDUNAK ZUZENDU HONA:

BBVA Research: Azul Kalea, 4. Edificio de la Vela - 4ª y 5ª plantas. 28050 Madrid (España).

Tel.: +34 91 374 60 00 eta +34 91 537 70 00

Fax: +34 91 374 30 25 - bbvaresearch@bbva.com www.bbvaresearch.com

